

| BIZITZA +



LAGUN ARO

**BALDINTZA OROKOR HAUEK (FP6103 / 00 Berrik.), BALDINTZA PARTIKULARREKIN, BALDINTZA BEREZIEKIN ETA GALDE-SORTAREN ESKAERAREKIN BATERA, ASEGURU-KONTRATUA OSATZEN DUTE.**

**SEGUROS LAGUN ARO VIDA sozietate anonimoa**

Egoitza soziala: Basurtuko Kaputxinoen kalea, 6 -2a.  
48013 **BILBAO**  
Telefonoa: 94 479 83 00

Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatua, 186 liburukia, 58. folioa, BI 2229 orria - IFK: A-20182705.

# **Bizitza Asegurua**

**Lagun Aro Bizitza +**

Baldintza Orokorrak

# AURKIBIDEA

<b>LEGE-INFORMAZIOA</b>	<b>07</b>
<b>NON ERREKLAMATU</b>	<b>07</b>
<b>BIZITZA-ASEGURUAREN OINARRIZKO DEFINIZIOAK</b>	<b>08</b>
<b>BIZITZA-ASEGURUAREN OBJEKTUA</b>	<b>12</b>
<b>ESKLUSIO OROKORRAK</b>	<b>13</b>
<b>BERMEEN LABURPEN-KOADROA</b>	<b>15</b>
<b>NAHITAEZ KONTRATATU BEHARREKO BERME NAGUSIA</b>	<b>17</b>
Heriotza	17
<b>ISTRIPUEN ETA ZIRKULAZIO-ISTRIPUEN KASURAKO AUKERAKO KONTRATAZIO OSAGARRIA</b>	<b>18</b>
Istripu baten ondoriozko heriotza	18
Zirkulazio-istripu baten ondoriozko heriotza	18
<b>AUKERAKO KONTRATAZIOKO BERME OSAGARRIAK</b>	<b>20</b>
<b>Baldintza komunak</b>	<b>20</b>
Gaixotasun larriak	22
Baliaezintasun handia	32
<b>ISTRIPUEN ETA ZIRKULAZIO-ISTRIPUEN KASURAKO AUKERAKO KONTRATAZIO OSAGARRIA</b>	<b>33</b>
Istripuagatiko baliaezintasun handia	33
Zirkulazio-istripuagatiko baliaezintasun handia	34
Baliaezintasun iraunkor absolutua	35
<b>ISTRIPUEN ETA ZIRKULAZIO-ISTRIPUEN KASURAKO AUKERAKO KONTRATAZIO OSAGARRIA</b>	<b>36</b>
Istripuagatiko baliaezintasun iraunkor absolutua	36
Zirkulazio-istripuagatiko baliaezintasun iraunkor absolutua	38
Baliaezintasun iraunkor osoa (profesionala)	41
<b>ISTRIPUEN ETA ZIRKULAZIO-ISTRIPUEN KASURAKO AUKERAKO KONTRATAZIO OSAGARRIA</b>	<b>42</b>
Istripuagatiko baliaezintasun osoa (profesionala)	42
Zirkulazio-istripuagatiko baliaezintasun osoa (profesionala)	43
Zirkulazio-istripuagatiko baliaezintasun iraunkor partziala (baremoaren arabera) eta absolutua	49

Istripuagatiko laneko baja	55
Istripuagatik ospitaleratzeagatiko kalte-ordaina	58
Istripuagatiko osasun-gastuen itzulketa	60
<b>NOLA JOKATU ONDORENGO KASUETAN:</b>	
<b>ASEGURATUA HILTZEA</b>	<b>66</b>
<b>ASEGURATUARI GAIXOTASUN LARRI BAT DIAGNOSTIKATZEA</b>	<b>67</b>
<b>ASEGURATUAREN BALIAEZINTASUN IRAUNKOR Handia, Absolutua, Osoa eta Iraunkor Partziala (Baremoaren Arabera)</b>	<b>68</b>
<b>ASEGURATUAREN ISTRIPUAGATIKO LANEKO BAJA</b>	<b>69</b>
<b>ISTRIPUAGATIK ASEGURATUA OSPITALERATZEAGATIKO KALTE-ORDAINA</b>	<b>70</b>
<b>ASEGURATUAREN ISTRIPUAGATIKO OSASUN-GASTUEN ITZULKETA</b>	<b>71</b>
<b>POLIZAREN OINARRIZKO ARAUDIA</b>	<b>72</b>
Polizaren oinarriak	72
Poliza kontratatzekeo adin-mugak	73
Aseguruaren hasiera	73
Aseguruaren iraupena	73
Aseguruaren iraupenaren mugak	73
Kontratua desegiteko baldintzak	74
Disputaezintasuna	75
Kontratuaren mugak	75
Akatsa Aseguratuaren adinean	75
Aseguratutako kapitalen eta bermeen aldaketa	76
Onuradunak izendatzea eta aldatzea	76
Polizaren lagapena edo pignorazioa	76
Poliza galtzea edo suntsitzea	76
Aseguruaren primak	77
- Ordaintzeko era eta zenbatekoa	77
- Urteko primaren zatikatzea	77
- Graziatzeko epea	77

- Primen ordainketaren iraupena	78
- Primak ordaintzeko lekua	78
Prestazioen likidazioa eta ordainketa	79
- Hartzailearen, Aseguratuaren edo Onuradunen betebeharrak	79
- Aseguratuaren ordaintzeko epeak	79
- Prestazioa ordaintzeko berandutza	80
- Arbitrajea adostasunik egon ezean	81
Jakinarazpenak	82
Kontratuaren preskripzioa eta jurisdikzio aplikagarria	82
<b>EZOHIKO GERTAKARIEN ONDORIOZKO GALERENGATIK ASEGURATUEN KONPENTSAZIO PARTZUERGOAREN KALTE-ORDAINEN KLAUSULA PERTSONA-ASEGURUETAN</b>	<b>83</b>
<b>I. LEGE-ARAUEN LABURPENA</b>	<b>83</b>
1. Estaltzen diren ezohiko gertakariak	83
2. Kanpoan utzitako arriskuak	84
3. Estalduraren hedadura	85
<b>II. KALTEEN BERRI EMATEA ASEGURUEN KONPENTSAZIO PARTZUERGOARI</b>	<b>85</b>
Telefono interesgarriak	86
Oharrak	87

# LEGE-INFORMAZIOA

Hauek dira kontratu hau arautzen duten legeak eta xedapenak: Aseguru Kontratuen urriaren 8ko 50/1980 Legeak, Aseguru Etxeen eta Berraseguratzaileen antolaketa, ikuskatze eta kaudimeneko uztailearen 14ko 20/2015 Legeak, haren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 20ko 2486/98 Errege Dekretuak, eta Xedapen hauek garatzeko gainerako araudiak, baita Baldintza Orokor eta Partikularretan hitzartutakoak eta, hala dagokionean, kontratu-aseguruaren baldintza berezietakoak ere bai.

Aseguratuen eskubideak mugatzen dituzten klausulak ez dira baliozkoak izango polizaren Baldintza Partikularretan zehazki eta idatziz onartuta ez badaude. Onarpen hori ez da beharrezkoa izango legezko arauen transkripzio edo erreferentzia hutsak dituzten klausulak direnean.

Erakunde Aseguratzailea SEGUROS LAGUN ARO VIDA, S.A. da, eta egoitza sozial hau du: Basurtuko Kaputxinoak, 6-2. 48013 Bilbo, Bizkaia, Espainia. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatua, 186 liburukia, 58. folioa, BI 2229 orria, - IFK: A-20182705.

Erakundearen finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txostena kontsultatu nahi izanez gero: [www.segurolagunaro.com/informacioncorporativa](http://www.segurolagunaro.com/informacioncorporativa).

Ekonomia Ministerioko Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari dagokio haren jarduera kontrolatzea nahiz gainbegiratzea.

## PRIBATASUN POLITIKA

**Baldintza orokor honetan erantsita dagoen dokumentuan, aseguruak Seguros Lagun Aroren pribatasun politika kontsultatu ahal du.**

## NON ERREKLAMATU

Auzirik sortuz gero, Aseguru Hartzaileak **lehendabizi** Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua jo dezake, barneko esparruan, idazkia hona bidaliz:

Seguros Lagun Aro  
Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua  
Basurtuko Kaputxinoak 6 - 2.  
48013 BILBO  
[www.segurolagunaro.com](http://www.segurolagunaro.com)  
[bezeroentzakoarreta@lagunaroaseguruak.eus](mailto:bezeroentzakoarreta@lagunaroaseguruak.eus)

**Bigarrenik**, eta adostasun-ezak badirau, kanpoko esparruan, idazkia hona bidaliz:

Dirección General de Seguros y Fondos de Pensiones  
Servicio de Reclamaciones  
Paseo de la Castellana, 44  
28046 Madrid  
[www.dgsfp.mineco.es](http://www.dgsfp.mineco.es)

Erreklamazioak Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Erreklamazio Zerbitzuaren aurrean onar eta izapide daitezen, ezinbestekoa izango da aurretiaz egin izana frogatzea, idatziz, Seguros Lagun Aro Vida, S.A.ren Bezeroaren Arreta-Zerbitzuari. Honek aurkeztu zaizkion erreklamazioak hartu izanaren berri eman beharko du idazki bidez, eta arrazoiturik konpondu edo ukatu beharko ditu erreklamazioak, idazki bidez hori ere. Halaber, erreklamatzaileak erreklamazioa aurkeztu zuen dataz geroztik erreklamazioa konpondu gabe bi hilabete pasatu direla frogatu behar izango du, edo erreklamazioa onartzeari uko egin zaiola edo bere eskaera ezetsi dela.

**Edonola ere**, beti izango du epaitegi eta justizia auzitegi arruntetara jotzeko aukera.

# ASEGURUAREN OINARRIZKO DEFINIZIOAK

**Erakunde Aseguratzailea.** Seguros LAGUN ARO VIDA, S.A., poliza honen erakunde jaulkitzailea, primak kobratuz arriskuen estaldura eta kontratu honen helburu diren prestazio aseguratuen ordainketa bere gain hartzen dituen, polizaren baldintzekin bat.

**Aseguru-hartzailea.** Kontratu hau Erakunde Aseguratzailearekin sinatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa, eta hortik sortzen diren betebeharrak, eta bereziki adostutako prima ordaintzearena, bere gain hartu beharko dituen, espresuki Aseguratuari eta/edo Onuradunari dagozkionak izan ezik.

**Aseguratua.** Pertsona fisiko horren bizitzaren gain egiten da Asegurua. Normalean Hartzailearekin bat dator Aseguratua, baina ez nahitaez.

**Onuraduna.** Pertsona fisiko edo juridiko horren alde hitzartzen da aseguru, eta beraz polizan zehaztutako prestazioetarako eskubidea dauka. Aseguru-hartzaileari dagokio Onuraduna izendatzea, eta izendapen hori aseguruaren indarraldi osoan zehar aldatzeko eskubidea ere izango du. Heriotza-prestazioaren kasuan izan ezik, normalean Aseguratuarekin bat dator Onuraduna, baina ez nahitaez.

**Eskubideen lagapena.** Kreditu-erakunde baten aldeko aukerako klausula bat da. Hartzaileak polizaren Baldintza Partikularren barnean sar dezake, eta bere titulartasuneko maileguak bermatzea du helburu. Polizak estaltzen dituen gertaeren aurrean, lehenik eta behin Erakunde Aseguratzaileak amortizatzeke dagoen zorra edo saldoa hartuko du bere gain, betiere Baldintza Partikularretan ezarritako kapital aseguraturaino, eta kapital aseguratu hori gainditzen duen kopurua polizaren Baldintza Partikularretan ere ezartzen den onuradunen izendapenaren arabera ordainduko da.

**Aseguratuaren deklarazioak.** Poliza kontratatu aurretik, Erakunde Aseguratzaileak dagozkion galde-sortak betetzea eskatuko dio aseguru egin nahi duen pertsonari, arriskua behar bezala baloratu eta aseguruaren baldintzak zehaztu ahal izateko. Galde-sorta horien helburua da aseguru egin nahi duen pertsonaren datu pertsonalez gain haren egoera fisikoa eta osasun-egoera, bizi-ohiturak, jarduera profesionala eta, kasua denean, aisialdian egiten dituen kirolak eta/edo jarduerak ere ezagutzea. Deklarazio hauek telefonozko inkesta edo **teleaukeraketa-prozesu** bidez ere lortu ahal izango dira.

**Azterketa medikoa.** Zenbait kasutan, aseguru egin nahi duen pertsonaren adinaren eta eskatutako kapital aseguratuaren arabera, Erakunde Aseguratzaileak proba mediko jakin batzuk egitea eskatu ahal izango du poliza kontratatu aurretik. Proba horiek erakundearen kargura izango dira edonola ere, eta emaitzak azterketa jaso duen pertsonari jakinaraziko zaizkio.

**Poliza.** Aseguru-kontratua gauzatzen duen eta, hura arautzeko, Erakunde Aseguratzailearen eta Hartzailearen artean hitzartutako baldintzak jasotzen dituen dokumentu-multzoa.

Erakunde Aseguratzaileak Hartzailearen eskaeraren arabera jaulkitzen du poliza edo aseguru-kontratua, eta Aseguratuak egindako deklarazioetan eta dagokionean proba medikoen emaitzan oinarritzen da.



Deklarazio horiek aseguruaren oinarria dira eta polizaren Baldintza Partikularren barnean daude. Baldintza Partikularren dokumentu horrek, berriz, arriskua identifikatzen du, Hartzaile bakoitzarentzako datu indibidualak eta espezifikoak jasotzen ditu, eta aseguruaren alderdi orokor eta oinarrizkoak ezartzen dituzten Baldintza Orokorrekin batera poliza edo aseguru-kontratua osatzen du.

**Gehigarriak.** Kontratuaren indarraldian aseguruiko baldintza indibidual eta espezifikoetan gertatzen diren aldaketak polizaren Baldintza Partikularretako dagozkion gehigarrietan jasoko dira.

**Kapital aseguraturua.** Hartzaileak polizaren Baldintza Partikularretan asegurutzen den berme bakoitzerako ezartzen duen zenbatekoa, polizak estalitako gertaera baten aurrean eman beharreko prestazioaren kopurua alegia. Hartzaileak Baldintza Partikularretan hitzartu ahal izango du kapital horrek aldaketarik ez izatea edota urtez urte balio handiagoa hartzea, prestazioari hasieran esleitutako zenbatekoaren erosahalmena mantentzeko helburuz. Polizaren Baldintza Partikularretan jasoko da kapital aseguratuaren balioa automatikoki aseguru-urtaldi bakoitzaren hasieran zein zenbateko eta modutan handituko den.

**Aseguruaren adin aktuariala.** Kontratuaren efektu-datatik gertuen dagoen urtebetetzeari dagokion adina (bete aurretik nahiz bete ondoren).

**Iraupena.** Kontratatzen den poliza urtez urte berrituko da; beraz, urtebeteko iraupena du. Alabaina, Hartzaileak kontraktorik adierazi ezean, poliza automatikoki berrituko da urtero-urtero aseguruaren efektu-dataren ondorengo urtemuga bakoitzean, berritze-urtaldi bakoitzeko prima ordainduz. Polizaren iraupena Baldintza Partikularretan egongo da ezarrita, eta hortik kanpo ez dago aseguru-estaldurarik.

**Prima.** Hartzaileak Erakunde Aseguratzailerari ordainduko dion prezioa edo aseguruaren kontraprestazioa. Polizaren efektu-dataren ondorengo aseguru-urtaldi osotan kalkulatu da, eta aldeztu aurretik ordaindu behar da polizaren efektu-datan eta ondorengo urtemugetan. Primaren ordainagiria, legeztatik aplikatzekoak diren zergak eta errekarguak ere sartuko dira.

Prima urteko berritze bakoitzean birkalkulatuko da, aseguratuak betetako adina eta berritze-datan dagokion kapital aseguraturua kontuan hartuta. Kapital aseguraturako mila euro bakoitzeko urteko primen tarifa polizaren Baldintza Partikularretan dago ezarrita eranskin gisa.

Aseguruaren Hartzaileak urteko primaren ordainketa epe txikiagotan finantzatu ahal izango du, dagokion zatikatzeagatik errekargua ordaintzen badu, hautatutako ordaintzeko eraren arabera.

**Istripua.** Gorputzeko lesioa, kausa bortitz, bat-bateko, kanpoko eta aseguratuaren asmoez edo borondateaz bestelako batetik sortzen dena.

Halaber, ondorengo arriskuak ere istripuztat joko dira:

- Gasen eta lurrunen ondorioz, edo urpean sartzearen ondorioz edo jatekoak ez diren gai likidoak edo solidoak irensteagatik sortutako barne-lesioak edo asfixia.

- Polizak estalitako istripu batetik sortutako infekzioak.
- Polizak estaltzen duen istripu baten ondorioz egindako ebakuntza kirurgikoen edo tratamendu medikoen ondorioz sortutako lesioak.

**Zirkulazio-istripua.** Gorputzeko lesioa, honelako istripuetan sortutakoa:

- Pertsonak garraia ditzakeen ibilgailu edo gailu batek oinez doan aseguratuari lesioak sortzea.
- Pertsonak garraia ditzakeen lurreko ibilgailu edo gailu bat gidatzen duen edo bertan doan aseguruak lesioak jasotzea.
- Lurreko, itsasoko edo aireko garraio publikoetan doan aseguruak lesioak jasotzea.

**Gabealdia.** Polizaren efektu-dataren ondorengo epe horretan, ezbeharririk gertatuz gero ez da inongo erreklamaziorik aintzat hartuko, polizaren bermeez efekturik ez dutela jotzen delako. Behin gabealdia amaitu denean, polizaren bermeen estaldura polizaren Baldintza Partikularretan finkatutako datara hedatuko da.


Esklusiboki hiru hilabeteko gabealdia ezartzen da minbiziaren estaldurarako Gaixotasun Larrien bermean.

**Baremoa.** Baremotzat hartuko da gizakiak jasandako kalte edo ondorioen zerrenda, lesio horiei baliaezintasun iraunkorreko ehuneko bat esleitzeko erabiltzen dena hain zuzen ere.

**Ondorioa.,** Ondoriotzat hartuko dira kalte egonkor, behin betiko eta atzeraezinak.

**Frankizia.** Esklusiboki istripuagatiko laneko bajaren bermerako, frankiziatzat ulertuko da polizak estalitako istripu bat gertatuz gero kontratatutako kapital aseguratuko eguneko zenbatekoa sorraraziko ez den hasierako epealdia. Frankizia- aldia Aseguratuaren baja-datatik aurrera izango da, eta, hori amaitzean, kontratatutako eguneko subsidioa sorraraziko da medikuaren alta eskuratu arte edota 365 eguneko gehieneko mugara iritsi arte (frankizia-aldia barne) istripuaren egunetik kontatzen hasita.

**Osasun-zentroa, klinika edo ospitalea.** Esklusiboki istripuagatik ospitaleratzeagatiko kalte-ordainaren bermerako, holakotzat hartuko dira gaixoak edo istripuren bat izan dutenak jaso eta paziente gisa tratatzeko legez ezarrita dauden establezimenduak. Horretarako, ezinbesteko baldintza izango da establezimendu horiek eguneko 24 orduetan medikuntzako edo erizaintzako zerbitzuak izatea, bai eta diagnostikatzeko eta ebakuntza kirurgikoak egiteko beharrezkoak diren tresna teknikoak ere. Ez da ospitalizaziotzat hartuko bainuetxe edo antzekoetan egotea, helburu terapeutikoekin izan baldin bada ere.



# BIZITZA-ASEGURUAREN OBJEKTUA



## Bere baitan hartzen ditu:

Kontratu honen helburua da Erakunde Aseguratzailerak Baldintza Partikularretan hitzartu diren pertsona aseguratuaren bizitzaren eta/edo osotasun fisiko edo osasun-egoeraren gaineko arriskuak estaltzea, aseguratuaren Hartzaileak dagokion prima ordaintzearen truke.

Xedea da, beraz, Onuradunaren/Onuradunen ondarea babestea edozein lekutan eta eguneko 24 orduetan gertatutako edozein gaixotasun edo istripuren ondorioz sortutako Aseguratuaren heriotza, baliaezintasun iraunkor edo gaixotasun larrien aurrean, eta ahal den neurrian mendeko pertsonen eta Aseguratuaren beraren egonkortasun ekonomikoak kalteak izatea saihestea.

Horrez gain, gaixotasun larri eta/edo baliaezintasuneko bermeen bidez, Aseguratuaren bizi-kalitatea hobetzea eta baita tratamendu medikoei edo kirurgikoei edo errehabilitaziozkoiei esker Aseguratuaren sendatzea ere ahalbidetuko duten bitarteko ekonomikoak eman nahi dira.

Laneko baja, ospitaleratzeagatiko kalte-ordain eta/edo osasun-gastuen itzulketako

bermeen bitartez, istripu bat jasan ondoren sortzen diren behar ekonomikoak estali nahi dira: lan egiteko aldi baterako ezintasuna, ospitaleratze-epeak, proba eta tratamendu medikoak, ebakuntza kirurgikoak, errehabilitazio-saioak...

# ESKLUSIO OROKORRAK

Oro har eta berme guztien kasuan, Erakunde Aseguratzailerak ez ditu estaltzen ondorengo arrazoiak tarteko sortu edo eragindako ondorioak:



- Poliza hau indarrean jarri aurretik gertatutako gaixotasunak, lesioak eta/edo istripuak, nahiz eta horien eragina poliza indarrean egon bitartean azaldu.
- Ezohiko gertakariak, oro har Aseguruen **Konpentsazio Partzuergoak** estaltzen dituenak, Hartzaileak Partzuergoaren alde dagokion nahitaezko errekargua ordaindu izanaren truke, ezbeharraren unean indarrean dagoen legediaren arabera.
- **Gatazka armatuak**, aurrez gerra-deklarazio ofizialik izan ez bada ere.
- **Energia, erreakzio edo erradiazio nuklearra eta kutsadura erradioaktiboa**, eragin zuzenez nahiz zeharkakoaz.
- Aseguruen **Konpentsazio Partzuergoak** estaltzen ez dituen natura-fenomeno ezohikoak.
- Duten tamaina eta larritasunagatik Estatuko Gobernuak <<katastrofe edo hondamen nazional>> gisa kalifikatzen dituen ezbeharrak.
- Ibilgailua **pilotu, kopilotu edo bidaiari soil** gisa okupatuz, Aseguratuak edozein klasetako kirol-probetan parte hartzeagatik gertatutako istripuak.
- **Bidaiarien garraio publikorako baimenik ez duten aireko nabigazio-bideak**, bai eta helikopteroak ere, bidaiari edo tripulaziokide bezala erabiltzea, edo tripulaziokide bezala edozein aireko nabigazio-bide erabiltzea ere.
- Gertakari hauen ondorioak ere ez dira estaltzen, polizaren **Baldintza Partikularretan** barne hartu eta dagokien gainprima ordaintzen ez bada behintzat:
  - Ziklomotorrak eta motozikletak erabiltzea eta gidatzea.
  - Quad eta minimotoak erabiltzea eta gidatzea.
  - Edozein kirol egitea profesionalki kirolari, monitore, entrenatzaile edo prestatzaile gisa.

- Gidatze-, salbamendu- edo erreskate-lanak.
- Kirol-federazio edo antzeko beste erakundeek antolatutako lehiaketa edo txapelketetan parte hartzea, eta, bereziki, txirrindularitza-lehiaketetan parte hartzea.
- Ondoko kirolak praktikatzea:
  - Automobilismoa eta motoziklismoa edozein modalitatetan.
  - Mendizaletasuna: 3.000 metrotik gorako gailurretara igoetzea, edota ekipamendu espezifikoa erabiltzea eskatzen duten gailur txikiagoetara igoetzea.
  - Mendiko ibaietako kirolak, eskalada, espeleologia, eskia eta beste negu-kirol batzuk.
  - Zikloturismoa, txirrindularitza eta mendiko bizikleta.
  - Motonautika, birika artifiziala erabiliz egindako urpekaritza, surfa, windsurfa, Espainiaren jurisdikzioko uretatik kanpora egindako nabigazioa bidaiarien garraio publikokoak ez diren ontzietan.
  - Hockeya, hipika.
  - Boxeoa, borroka edozein modalitatetan, arte martzialak.
  - Parakaidismoa, aerostazioa, hegaldi librea, motorrik gabeko hegaldia.
  - Zezenketa eta abelburu basatien entzierroa.
  - Oro har, edozein kirol edo aisiako jarduera, nabarmenki arriskutsua bada.

# BERMEEN LABURPEN-KOADROA

Hartzaileak ondorengo aseguru-aukerak edo bermenak kontrata ditzake polizaren Baldintza Partikularretan:

<p><b>HERIOTZA</b></p> <p>3.000 €-ko aurrerakina berehala eta izapiderik gabe, heriotzatik eratorritako gastuei aurre egiteko</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaixotasun baten kasuan</li> <li>• Istripu baten kasuan</li> <li>• Zirkulazio-istripu baten kasuan</li> </ul>	<p>Berme hau izango da nagusia besteen aldean, eta nahitaezkoa izango da gutxieneko kapital aseguruaren zenbateko bat kontratatzea (10000 €) gaixotasun zein istripukasurako.</p> <p>Era osagarri eta aukerakoan, aseguraturako kapitalaren zenbatekoak handitu ahal izango dira istripuen edo zirkulazio-istripuen kasuetarako eta Gaixotasunagatik kontratatutako kapitalaren bikoitza eta hirukoitza izango dira gehienez, hurrenez hurren.</p>
<p><b>GAIXOTASUN LARRIAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaixotasuna edo istripua izanez gero</li> </ul>	<p>Kontratatzea aukerakoa den berme osagarria.</p> <p>Kontratatzeko, nahitaezkoa da aseguraturako kapital-zenbateko bat finkatzea gaixotasun-kasuetarako nahiz istripu-kasuetarako; kapital hori Heriotzaren estaldura nagusirako zehaztutako kapitalaren halako 5era mugatuta egongo da.</p>
<p><b>BALIAEZINTASUN HANDIA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaixotasun baten kasuan</li> <li>• Istripu baten kasuan</li> <li>• Zirkulazio-istripu baten kasuan</li> </ul>	<p>Kontratatzea aukerakoa den berme osagarria.</p> <p>Kontratatzeko, nahitaezkoa da aseguraturako kapital zenbateko bat finkatzea gaixotasun-kasuetarako nahiz heriotza-kasuetarako.</p> <p>Gaixotasun-kasuan Baliaezintasun Handiaren bermerako kontratatutako kapitala Heriotzaren estaldura nagusirako zehaztutako kapitalaren halako 10era mugatuta egongo da.</p> <p>Era osagarri eta aukerakoan, aseguraturako kapitalaren zenbatekoak handitu ahal izango dira istripuen edo zirkulazio-istripuen kasuetarako eta Gaixotasunagatik kontratatutako kapitalaren bikoitza eta hirukoitza izango dira gehienez, hurrenez hurren.</p>

<p><b>BALIAEZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Era osagarri eta aukerakoan, Baremoaren arabera Ezintasun Iraunkor Partzialaren bermearekin istripuagatik eta trafiko-istripuagatik</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaixotasun baten kasuan</li> <li>• Istripu baten kasuan</li> <li>• Zirkulazio-istripu baten kasuan</li> </ul>	<p>Kontratatzea aukerakoa den berme osagarria.</p> <p>Kontratatzeko, nahitaezkoa da aseguratutako kapital zenbateko bat finkatzea gaixotasun-kasuetarako nahiz heriotza-kasuetarako.</p> <p>Era osagarri eta aukerakoan, Baremoaren arabera Ezintasun Iraunkor Partzialaren bermea kontratatzeko aukera eskaintzen da, istripuagatik eta trafiko-istripuagatik.</p> <p>Era osagarri eta aukerakoan, aseguratutako kapitalaren zenbatekoak handitu ahal izango dira istripuen edo zirkulazio-istripuen kasuetarako siendo como máximo el doble y triple respectivamente del contratado por Enfermedad.</p>
<p><b>BALIAEZINTASUN IRAUNKOR OSOA (PROFESIONALA)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaixotasun baten kasuan</li> <li>• Istripu baten kasuan</li> <li>• Zirkulazio-istripu baten kasuan</li> </ul>	<p>Kontratatzea aukerakoa den berme osagarria.</p> <p>Kontratatzeko, nahitaezkoa da aseguratutako kapital-zenbateko bat finkatzea gaixotasun-kasuetarako nahiz heriotza-kasuetarako. Era osagarri eta aukerakoan, aseguratutako kapitalaren zenbatekoak handitu ahal izango dira istripuen edo zirkulazio-istripuen kasuetarako eta Gaixotasunagatik kontratatutako kapitalaren bikoitza eta hirukoitza izango dira gehienez, hurrenez hurren.</p>
<p><b>LANEKO BAJA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Istripu baten kasuan</li> </ul>	<p>Kontratatzea aukerakoa den berme osagarria.</p>
<p><b>OSPITALERATZEAGATIKO KALTE-ORDAINA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Istripu baten kasuan</li> </ul>	<p>Kontratatzea aukerakoa den berme osagarria.</p>
<p><b>OSASUN-GASTUEN ITZULKETA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Istripu baten kasuan</li> </ul>	<p>Kontratatzea aukerakoa den berme osagarria.</p>

**Ezintasun iraunkorreko berme desberdinen (Baliazintasun Handiaren, Ezintasun Iraunkor Absolutuaren eta Ezintasun Iraunkor Osoaren) kapitalak ezingo dira inoiz ere metatuko.**

**Bermeen kapitalak beren izaeraren edo kausaren arabera (GAIXOTASUNA, ISTRIPUA edo TRAFIKO-ISTRIPUA) ez dira inoiz ere elkarrekin metatuko.**



# NAHITAEZ KONTRATATU BEHARREKO BERME NAGUSIA

## Heriotza

### Estaltzen dira

→ Aseguratua, **gaixotasun edo istripuagatik eta edozein lekutan**, hiltzen bada, Erakunde Aseguratzailleak konpromisoa hartzen du polizako Baldintza Partikularretan berme horretarako ezartzen den kapital aseguratua izendatutako Onuradunari emateko.

Erakunde Aseguratzailleak konpromisoa hartzen du polizako Baldintza Partikularretan primak kobratzeko ezarrita dagoen Aseguru Hartzailearen bankukontuan berehala eta inolako izapideren beharrik gabe 3.000 euro emateko, heriotzako berme nagusirako ezarrita dagoen kapital aseguruaren gaineko aurrerakin gisa, heriotzatik eratorritako gastuei aurre egiteko.

Berme hau izango da nagusia besteen aldean, eta nahitaezkoa izango da gutxieneko kapital aseguruaren zenbateko bat kontratatzea (10.000 €) gaixotasun- zein istripu-kasurako.

Era osagarri eta aukerakoan, aseguratutako kapitalaren zenbatekoak handitu ahal izango dira istripuen edo zirkulazio-istripuen kasuetarako, eta Gaixotasunagatik kontratatutako kapitalaren bikoitza eta hirukoitza izango dira gehienez, hurrenez hurren.

### Ez dira estaltzen

→ **Suizidioa** aseguru-kontratuaren indarraldiaren **lehen urtean**. Ondorio horietako, suizidiotzat hartuko da Aseguratuak berak kontziente eta boluntarioki bere buruaz beste egitea.

Urtebeteko epe hori igaro ondoren, suizidio-arriskua estalita egongo da.

# ISTRIPUEN ETA ZIRKULAZIO-ISTRIPUEN KASURAKO AUKERAKO KONTRATAZIO OSAGARRIA

## Istripu baten ondoriozko heriotza

### Estaltzen dira

→ Polizaren Baldintza Partikularretan Hartzaileak **kapital aseguratua handiagoa hitzartuko balu istripu-kasurako gaixotasun-kasurako baino**, eta Aseguratua polizak estalitako istripu baten ondorioz hilko balitz, Erakunde Aseguratzailerak konpromisoa hartuko du izendatutako Onuradunari polizaren Baldintza Partikular horietan kasu horretarako ezarrita dagoen kapital aseguratua ordaintzeko.

Aseguru honen ondorioetarako, istripuagatiko heriotzatzat ulertuko da Aseguratuaren borondatezkoa ez den kanpo-gertaera bortitz eta bat-bateko baten zuzeneko ondorioengatik gorputz-lesio baten eraginez Aseguratua hiltzea, betiere heriotza lesioa jasan eta handik urtebeteko epearen barruan gertatzen bada.

Halaber, ondorengo arriskuak ere istriputzat joko dira:

- Gasen eta lurrunen ondorioz, edo urpean sartzearen ondorioz edo jatekoak ez diren gai likidoak edo solidoak irensteagatik sortutako barne-lesioak edo asfixia.
- Polizak estalitako istripu batetik sortutako infekzioak.
- Polizak estaltzen duen istripu baten ondorioz egindako ebakuntza kirurgikoen edo tratamendu medikoen ondorioz sortutako lesioak.

## Zirkulazio-istripu baten ondoriozko heriotza

### Estaltzen dira

→ Polizaren Baldintza Partikularretan Hartzaileak **kapital aseguratua handiagoa hitzartuko balu zirkulazio-istripuen kasurako istripuen kasurako baino**, eta Aseguratua polizak estalitako zirkulazio-istripu baten ondorioz hilko balitz (berehala nahiz **istripuaren ondorengo 365 egunen barruan**, eta munduko edozein lekutan), Erakunde Aseguratzailerak konpromisoa hartuko du izendatutako Onuradunari polizako Baldintza Partikularretan berme horretarako ezartzen den kapital aseguratua ordaintzeko.

**Baldintza Partikularretan zirkulazio-istripuagatiko heriotza-kasurako esleitutako kapital aseguratua zenbatekoa ezin da metatu istripu-kasuan berme horretarako adierazitakoarekin.**

Aseguru honen ondorioetarako, Aseguratuaren heriotza zirkulazio-istripu batengatik gertatu dela ulertuko da ondorengo istripu baten ondorioz hiltzen denean:

- Pertsonak garraia ditzakeen ibilgailu edo gailu batek oinez doan aseguratua hiltzea.
- Pertsonak garraia ditzakeen lurreko ibilgailu edo gailu bat gidatzean edo bertan joatean hiltzea.
- Lurreko, itsasoko edo aireko garraio publikoetan doanean hiltzea.



## Ez dira estaltzen

Polizaren **esklusio orokorrez** gain, kapital aseguruaren zenbatekoaren gain ondorengo **esklusio partikularrak** aplikatuko dira gaixotasun-kasurako kontratatutako zenbatekoa gainditzen duten **istripuen eta zirkulazio-istripuen kasurako**:

- **Aseguratuak nahita** eragindako istripuak.
- **Preskripzio medikoak eta/edo ezarritako tratamendua ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik** sortutako ondorioak edo larriagotzeak.
- Aseguratuari **erotuta edo drogak edo sorgogarriak kontsumitzeagatik intoxikatuta edo mozkortuta** dagoenean gertatzen zaizkion istripuak. Ondorio horietarako, mozkortutzat joko da **legeak ezarritakoa baino alkohol-tasa handiagoa duena odolean** (gaur egun tasa orokorra 0,50 gramo / 1.000 zentimetro kubikokoa da, eta profesional eta gidari berrientzat, berriz, 0,30 gramo / 1.000 zentimetro kubikokoa), edo Aseguratu arrazoi horregatik zigortua izaten denean.
- Ez dira istriputzat joko **miokardioko infartuak, istripu baskularrak edo garunekoak (odoljarioa, isuria edo apoplegia, aneurismak, barizeak, tronbosia, enbolia, garuneko infartua...), zorabioak eta sinkopeak, apoplegia- eta epilepsia-atakeak edo edozein eratako atake epileptiformeak eta horien ondorioak, nahiz eta erabaki judizial batek edo Gizarte Segurantzako organo eskudunek lan-istripu gisa kalifikatu.**
- Ez dira istriputzat joko **edozein eratako eta jatorritako herniak eta horien larriagotzeak, ez eta distentsioak, muskulu-hausturak, lumbagoa, lumbalgiak eta dortsalgiak** ere.
- Ez dira istriputzat joko **intzolazioak, izozteak eta, oro har, atmosfera-tenperaturaren edonolako ondorioak.**
- Ez da istriputzat joko **janariak hartzeagatik izandako intoxikazioa edo pozoidura.**
- Ez dira istriputzat joko **ebakuntza kirurgikoen edo tratamendu medikoen ondorioz sortutako lesioak.**
- **Aseguratuaren zuhurtziagabekeria edo zabarkeria larri** baten ondorioak; ezta ere Aseguratuak **delituzko ekintzetan, apustuetan, duelu edo liskarretan** parte hartetik eratortzen direnak ere, azken kasu horretan, betiere, hark bere defentsa legitimoan edota pertsonak eta ondasunak salbatzeko asmotan jokatu ez balu.

# AUKERAKO KONTRATAZIOKO BERME OSAGARRIAK

## Baldintza komunak

Berme osagarrien primek (kontratutuko balira) heriotzako berme nagusi eta nahitaezkoaren muga-egun bera izango dute.

**Kontratututako berme osagarrien iraupena Baldintza Partikularretan azaltzen dena izango da, eta haien estaldura automatikoki etengo da ondorengo kasuetan:**

- Aseguratua **hilez** gero.
- **Aseguratuak 67 urte betetzen dituen aseguru-urtaldia amaitzean**, Baliaezintasun Handiaren salbuespenarekin kapital gehigarri bat kontratatu izan balitz 75 urte betetzean amaitzen dena, Heriotzaren berme nagusia bezala, eta aseguruaren kontratuaren azken berritzearen adinarekin bat etorriz.
- Berme osagarrian bermatzen den **kapital aseguratua ordaintzean**.



## Ez dira estaltzen

Polizaren **esklusio orokorrez** gain, ondorengo **esklusio partikularrak** ere aplikatuko zaizkie kontratatzea aukerakoa den berme osagarri guztiei:

- **Aseguratuak bere borondatez** eragindako gaixotasunak edo istripuak.
- **Preskripzio medikoak eta/edo ezarritako tratamendua ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik** eratorritako gaixotasunak edo horien larriagotzeak.
- Aseguratuari **erotuta edo drogak edo sorgogarriak kontsumitzeagatik intoxicatuta edo mozkortuta** egoteagatik gertatzen zaizkion istripuak edo gaixotasunak. Ondorio horietarako, mozkortutzat joko da **legeak ezarritakoa baino alkohol-tasa handiagoa duena odolean (gaur egun tasa orokorra 0,50 gramo / 1.000 zentimetro kubikokoa da, eta profesional eta gidari berrientzat, berri, 0,30 gramo / 1.000 zentimetro kubikokoa), edo Aseguratuaren arrazoi horregatik zigortua izaten denean.**
- Ez dira istriputzat joko **miokardioko infartuak, istripu baskularrak edo garunekoak (odoljariora, isuria edo apoplegia, aneurismak, barizeak, tronbosia, enbolia, garuneko infartua...), zorabioak eta sinkopeak, apoplegia- eta epilepsia-atakeak edo edozein eratako atake epileptiformeak eta horien ondorioak, nahiz eta erabaki judizial batek edo Gizarte Segurantzako organo eskudunek lan-istripu gisa kalifikatu.**
- Ez dira istriputzat joko edozein eratako eta jatorritako **herniak eta horien larriagotzeak, ez eta distentsioak, muskulu-hausturak, lumbagoa, lunbalgiak eta dortsalgiak ere.**
- Ez dira istriputzat joko **intsolazioak, izozteak eta, oro har, atmosfera-tenperaturaren edonolako ondorioak.**
- Ez da istriputzat joko **janariak hartzeagatik izandako intoxikazioa edo pozoidura.**
- Ez dira istriputzat joko **ebakuntza kirurgikoen edo tratamendu medikoen ondorioz sortutako lesioak.**
- **Aseguratuaren zuhurtziagabekeria edo zabarkeria larri baten ondorioak;** ezta ere Aseguratuak **delituzko ekintzetan, apustuetan, duelu edo liskarretan** parte hartetik eratortzen direnak ere, azken kasu horretan, betiere, hark bere defentsa legitimoan edota pertsonak eta ondasunak salbatzeko asmotan jokatu ez balu.

# KONTRATATZEA AUKERAKOA DEN BERME OSAGARRIAK

## Gaixotasun larriak

### Estaltzen dira

Hartzaileak polizaren Baldintza Partikularretan berme osagarri hau hitzartu badu, eta Aseguratuari estalita dauden gaixotasun larrietako baten bat diagnostikatzen bazaio, **gaixotasun edo istripuagatik eta edozein lekutan**, Erakunde Aseguratzailak konpromisoa hartuko du izendatua dagoen Onuradunari polizaren Baldintza Partikularretan berme horretarako ezarrita dagoen kapital aseguratua ordaintzeko.

Kontratatzeko, nahitaezkoa da **aseguratutako kapital-zenbateko** bat finkatzea gaixotasun-kasuetarako nahiz istripu-kasuetarako; kapital hori Heriotzaren **estaldura nagusirako zehaztutako kapitalaren halako 5era mugatuta egongo da.**

Aseguru honen ondorioetarako, hau hartuko da gaixotasun larritzat: **istripuz edo gaixotasunez sortutako osasun-egoeraren edozein alterazio, Aseguratuaren borondatez kanpo sortutakoa, legez aitortutako mediku batek berretsia eta jarraian zehazten diren gaixotasunetako batekin bat datorrena, kontuan izanik Baldintza Orokorretan ezarritako mugapenak eta eskusioak.**

**Aseguratuak gutxienez 30 egunez bizirik iraun beharko du diagnostikoa egiten den egunetik berme honen prestazioa kobratzeko eskubidea eduki ahal izateko..**

**Berme horretatik ordainketa bakar bat eratorriko da, hitzartutako kapitalaren zenbatekoan, nahiz eta estalitako gaixotasun bat baino gehiago diagnostikatu aseguratuari, data horietan edo beste data batean.**

**Berme osagarri honengatik egiten den ordainketak, Aseguru Etxeak egiaztatu eta onartu ondoren, berme hau azkentzea ekarriko du, baina ez, ordea, kontratua azkentzea, kontratuak indarrean jarraituko baitu kontratatutako berme eta kapitalen arabera.**

# ESTALITAKO GAIXOTASUN LARRIAK

Berme horrek laguntza finantzarioa ematen du ondoren definitzen diren gaixotasun larrietakoren bat jasanez gero.

Tratamendu medikoen eta diagnostiko-tekniken etengabeko aurrerapenak direla-eta, baliteke polizan aurreikusitako definizioak berrikusi behar izatea terminologia eta sailkapen medikoekin etorkizunean bat datoze eta tratamendu, txerto eraginkor eta diagnostiko-prozedura modernoak kontuan hartzen dituztela ziurtatzeko. Era berean, baliteke ondo iriztea etorkizunean sor daitezkeen gaixotasun berriak sartzeari, hain larriak ez diren beste batzuk kentzearen truke.

Beraz, Seguros Lagun Aro Vida, S.A.k beretzat gordetzen du estalitako gaixotasun larriak aldatu ahal izateko nahiz haien definizioak doitzeko eskubidea; aldaketek, betiere, maila orokorrean eragingo diete izaera bereko poliza guztiei, eta inoiz ez maila indibidualean.

Aldaketak gertatuz gero, poliza berritu baino bi hilabete lehenago komunikatuko zaizkio Aseguru Hartzaileari, eta hark uko egin ahal izango die haiekin ados ez badago.

Berme osagarri honek ondorengo gaixotasun larriak estaliko ditu:

# ESTALITAKO GAIXOTASUN LARRIAK

## Miokardioko infartua

### Estaltzen dira



Bihotz-muskuluaren (miokardioaren) parte baten heriotza edo nekrosia, dagokion zonarako odol-hornidura urriegia bihurtzeagatik edo bat-batean eteteagatik.

Diagnostikoa sintoma hauek berretsiko dute:

- bularreko min tipikoen aurrekariak
- infartua berresten duten aldaketa elektrokardiografiko berriak
- bihotz-entzimen odoleko mailak laborategiak arruntzat jotzen dituen mailetatik gora daudenean
- eta ezker-bentrikuluaren funtzio-murrizketaren proba, ezker-bentrikuluaren eiekzio-frakzioa % 30etik behera dagoenean eta/edo hipozinesia esanguratsua nahiz azinesia dagoenean, eta/edo infartuaren ondorioz trenkada-mugimenduetan anomaliak daudenean.

### Ez dira estaltzen



Espresuki kanpoan uzten da angina.



# Minbizia

## Estaltzen dira



Tumore gaiztoa, alegia zelula gaiztoak ugaritu eta kontrolik gabe barreatzearen ondorioz, ehun arrunta inbaditu eta suntsitzen dueneko egoera.

Minbiziak diagnostikatua egon behar du, eta analisi histologikoak gaiztotzat berretsi behar du.

## Ez dira estaltzen



Espresuki kanpoan uzten dira:

- Minbizi ez-inbaditzaile edo “in situ” mota guztiak eta gaiztotasun aurreko egoera guztiak.
- T1N0M0 estadioan dagoen umetoki-lepoko minbizia, umetoki-lepoko displasia eta prostatako minbizi goiztiarra T1.
- Mota guztietako larruazaleko minbiziak, melanoma gaiztoa izan ezik.
- IB, IA edo IIA estadioan dagoen Hodgkin-en gaixotasuna, maila BAXUKO ez-Hodgkin linfoma eta leuzemia linfositiko kronikoa.
- Baldintza Partikularretan adierazitako kontratuaren efektu-datatik hasita eta hurrengo 90 egunen barnean diagnostikatutako minbizi guztiak.

## Garun-hodietako istripua

### Estaltzen dira

24 ordu baino gehiago irauten duten ondorio neurologikoak sortzen dituzten garun-hodietako gaitzak edo lesioak, garuneko ehunaren infartua, garun-barneko odoljariora eta garunaz kanpoko iturri baten enbolizazioa barne hartuz.

Gabezia neurologiko funtzionalaren eta anatomikoaren diagnostikoez esanguratsuak eta iraunkorrak izan behar dute argi eta garbi, eta OTAn (ordenagailu bidezko tomografia axialean) eta/edo EMNn (erresonantzia magnetiko nuklearrean) eta/edo OFITen (ordenadore bidezko fotoi bakarrak igorritako tomografian) ikusitako aldaketa berriek berretsiko dute diagnostiko hori.

### Ez dira estaltzen

Espresuki kanpoan uzten dira:

- Trastorno edo istripu iskemiko akutua (aldi baterako istripu iskemikoa)
- Kanpoko traumatismo baten ondorioz sortutako garun-hodietako trastornoa edo istripua.
- Pixkanaka atzeragarriak diren gaixotasunak, % 33 baino txikiagoa den kalte- edo disfuntzionaltasun-mailara arte.

## Giltzurrunetako gutxiegitasuna

### Estaltzen dira

Giltzurrunetako gutxiegitasuna azken etapan dagoenean, bi giltzurrunetako funtzioaren hutsegite kronikoa eta atzerazina badago eta hortik peritoneo-dialisiaren tratamendu erregular bat (astean behin gutxienez) hasten bada, edota hemodialisia eta/edo giltzurrun-transplantea behar izanez gero.

Gaitzaren diagnostiko analitikoa egin behar da, kreatininaren argitze moderatuaren/larriaren bidez (60 ml/min-tik gora) eta/edo 2,5 ml/seg-tik gorako kreatinina-indizearen bidez.

# Bihotz-kirurgia edo kirurgia kardiobaskularra

## Estaltzen dira



Odol-hodi nagusien kirurgia hala nola aortaren aneurisma disekeatzailea edo aortaren koarktazioa konpontzekoa, bihotz irekiko kirurgia, eta arteria koronarioen kirurgia, bi arteria koronario edo gehiagoren hertsadura, blokeoa edo estenosisia zuzentzeko arteria- edo bena-injertoen by-pass edo stent bidez egiten dena.

## Ez dira estaltzen



Espresuki kanpoan uzten dira:

- Balbulenak soilik diren ebakuntzak
- Bihotz-barneko tumorengatik edo sortzetiko alterazioengatik ebakuntzak

# Organo bitalak transplantatzea

## Estaltzen dira



Patologia medikoaren ondorioz bihotza, birika, gibela, giltzurruna, pankrea eta hezur-muina transplantatu behar direnean.

Aurrez aipatutako edozein organo transplantatzeko itzarote-zerrenda ofizial batean sartzea ere estalduraren barnean dago.

Bermeak organo-hartzailea estaltzen du soilik.

## Ez dira estaltzen



Bermeak ez du organo-emailea estaltzen.

## Paralisia, paraplegia

### Estaltzen dira

Bizkarrezur-muineko edo garuneko lesio edo gaixotasun baten ondorioz, bi gorputz-adarren edo gehiagoren erabilera edo funtzioa erabat eta modu iraunkorrean galtzea.

Funtzio-galera hori 12 hilabetetan modu jarraituan agertuko da eta neurologo espezialista batek erabatekotzat eta iraunkortzat jo beharko du.

Berme-estalduraren barnean daude **diplegia**, **hemiplegia**, **tetraplegia** eta **koadriplegia** gisa sailkatzen diren funtzio-galera guztiak ere.

## Alzheimer-en gaixotasuna

### Estaltzen dira

Garuneko funtzioen alterazio progresibo eta atzeraezinak sortzen dituen sindrome kliniko, aldaketa histologiko bereziekin.

Egoera klinikoak eta normalizatutako galde-sortak edo proba onartuek agerian utzi behar dute adimen-gaitasuna gutxitu edo galdu dela, adimen-funtzioa eta funtzio soziala asko murrizten dituzten trastorno degeneratibo organiko atzeraezinen ondorioz betiere. Hori dela-eta, gaixo dagoen pertsona etengabe gainbegiratu behar da.

### Ez dira estaltzen

Espresuki poliza-estalduratik kanpo uzten dira **gaixotasun psikiatrikoak**.

## Parkinson-en gaixotasuna

### Estaltzen dira

Hipozinesiak, muskulu-zurruntasunak eta atsedenean dardara izateak ezaugarritzen duten sindrome kliniko, sistema nigroestriatuaren endekapenak sortua izan ohi dena funtsean.

Zalantzagabeko diagnostikoa neurologo espezialista batek egin behar du.

Parkinson **idiopatikoa**ren edo **primarioa**ren kasuak bakarrik daude berme-estalduraren barnean, hau da, arrazoi ezezaguneko jatorria dutenak.

## Koma-egoera

### Estaltzen dira



Garuneko funtzioaren hutsegiteak, kanpoko estimuluei edo barneko beharrei ez erantzutea izanik egoera horien ezaugarri nagusia. Gutxienez 96 ordu iraun behar dute eta ordu horietan bizi-funtzioak artifizialki mantentzeko sistema bat beharko da.

Komak garun-funtzioaren galera handia eta iraunkorra utzi behar du ondorio gisa, neurologo espezialista batek berretsiko duena.

### Ez dira estaltzen



Espresuki poliza-estalduratik kanpo uzten da **barbiturikoek eragindako koma**.

## Erabateko itsutasuna

### Estaltzen dira



Bi begietako ikusmenaren erabateko galera iraunkorra eta berreskurazina, gaixotasun edo istripu batek sortua.

Estaliak geratzen dira OMEk larri gisa (0,05) sailkatutako ikusmen-defizitak, eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan eragina dutenak, betiere bi begietan edukiz gero, iraunkorrak eta berreskurazinak badira.

## Erredura larriak

### Estaltzen dira



Hirugarren mailako erredurak, gorputzeko azaleraren % 40 gutxienez hartzen badute.

## Ez dira estaltzen



Polizaren berme guztietarako ezarritako eskusio orokorrez eta bermeak estaltzen duen gaixotasun bakoitzerako zehazki ezartzen diren mugapen eta eskusio partikularrez gain, aplikatzekoak izango dira, halaber, Hartzaileak kontratatzea aukera dezakeen berme osagarrietarako ezarritako eskusio partikular guztiak.

## Adibidea

Hartzaileak poliza bat kontratatzen du ondorengo berme eta kapital aseguratuekin:

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	25.000 €
	Istripu baten kasuan	50.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	75.000 €
GAIXOTASUN LARRIAK	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	50.000 €
BALIAEZINTASUN HANDIA	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	100.000 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUA	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	75.000 €

Aseguratuari polizak estalitako Gaixotasun Larri bat diagnostikatuko balitzaio, dagokion 50.000 €-ko prestazioa ordaindu eta gero, estaldura hori deuseztatu egingo litzateke eta polizaren berme eta kapital aseguruak honela geratuko lirateke:

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	25.000 €
	Istripu baten kasuan	50.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	75.000 €
BALIAEZINTASUN HANDIA	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	100.000 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUA	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	75.000 €

# KONTRATATZEA AUKERAKO A DEN BERME OSAGARRIAK

## Baliaezintasun handia

### Estaltzen dira



Aseguru Hartzaileak polizaren Baldintza Partikularretan berme osagarri hau hitzartu badu, eta Aseguratuak Baliaezintasun Handi bat jasanez gero, **gaixotasun edo istripuagatik eta edozein lekutan**, Erakunde Aseguratzailleak konpromisoa hartzen du izendatuta dagoen Onuradunari polizaren Baldintza Partikularretan berme horretarako ezarrita dagoen kapital aseguratua ordaintzeko.

Berme hau kontratatzeko beharrezkoa izango da kapital aseguratuko zenbateko bat ezartzea, bai gaixotasun-kasurako bai istripu-kasurako.

**Gaixotasun-kasuan Baliaezintasun Handiaren bermerako kontratatutako kapitala Heriotzaren estaldura nagusirako zehaztutako kapitalaren halako 10era mugatuta egongo da.**

**Baldintza Partikularretan ezarritako Ezintasun Iraunkorreko berme desberdinen (Baliaezintasun Handiaren, Ezintasun Iraunkor Absolutuaren eta Ezintasun Iraunkor Osoaren) kapitalak ezingo dira inoiz ere metatuko.**

Era osagarri eta aukerakoan, aseguratutako kapitalaren zenbatekoak handitu ahal izango dira istripuen edo zirkulazio-istripuen kasuetarako eta Gaixotasunagatik kontratatutako kapitalaren bikoitza eta hirukoitza izango dira gehienez, hurrenez hurren.

Aseguru honen ondorioetarako, Baliaezintasun Handitzat hartuko da Aseguratuaren borondatez kanpo sortutako egoera fisiko atzeraezina, istripu edo gaixotasunak eragindakoa, eta, galera anatomiko edo funtzionalen ondorioz, bizitzako egintza oinarritzkoenak egiteko (hala nola janzteko, mugitzeko, jateko edo antzekoetarako) beste pertsona baten laguntza behar izatea dakarrena.

Berme osagarri honengatik egindako ordainketak, Aseguru Etxeak egiaztatu eta onartu ondoren, bermea azkentzea dakar, eta, era berean, gradu txikiagoko Ezintasun Iraunkorraren, Absolutuaren eta Osoaren gainerako berme osagarriak, kontratatu izan balira; polizak, berriz, indarrean jarraituko du kontratatutako gainerako berme eta kapitalekin bat etorritz.

### Ez dira estaltzen



Polizaren eskusio orokorrez gain, aplikatzekoak izango dira, halaber, Aseguru Hartzaileak kontratatzea aukera dezakeen berme osagarrietarako ezarritako eskusio partikular guztiak.



# ISTRIPUEN ETA ZIRKULAZIO-ISTRIPUEN KASURAKO AUKERAKO KONTRATAZIO OSAGARRIA

## Istripuagatiko baliaezintasun handia

### Estaltzen dira



Polizaren Baldintza Partikularretan Hartzaileak **istripu-kasurako gaixotasun-kasurako baino kapital aseguratu handiagoa** hitzartuko balu, eta Aseguratuak polizak estalitako istripu baten ondorioz Baliaezintasun Handi bat jasango balu, Erakunde Aseguratzailerak konpromisoa hartuko du izendatutako Onuradunari polizaren Baldintza Partikular horietan kasu horretarako ezarrita dagoen kapital aseguratua ordaintzeko.

Aseguru honen ondorioetarako, istripuagatiko baliaezintasun iraunkor absolututzat hartuko da **Aseguratuaren borondatezkoa ez den kanpo-gertaera bortitz eta bat-bateko baten zuzeneko ondorioengatik gorpuzt-lesio baten eraginez sortutako egoera fisiko atzeraezina, bizitzako ekintza oinarritzkoenak egiteko (hala nola janzteko, mugitzeko, jateko edo antzekoetarako) beste pertsona baten laguntza behar izatea dakarrena, eta betiere kontuan izanik lesio horiek izan eta 18 hilabeteren barruan sortzen bada baliaezintasuna.**

Halaber, ondorengo arriskuak ere istriputzat joko dira:

- Gasen eta lurrunen ondorioz, edo urpean sartzearen ondorioz edo jatekoak ez diren gai likidoak edo solidoak irensteagatik sortutako barne-lesioak edo asfixia.
- Polizak estalitako istripu batetik sortutako infekzioak.
- Polizak estaltzen duen istripu baten ondorioz egindako ebakuntza kirurgikoen edo tratamendu medikoen ondorioz sortutako lesioak.

### Ez dira estaltzen



Polizaren eskusio orokorrez gain, aplikatzekoak izango dira, halaber, Hartzaileak kontratatzea aukera dezakeen berme osagarrietarako ezarritako eskusio partikular guztiak.

# ISTRIPUEN ETA ZIRKULAZIO-ISTRIPUEN KASURAKO AUKERAKO KONTRATAZIO OSAGARRIA

## Zirkulazio-istripuagatiko baliaezintasun handia

### Estaltzen dira



Polizaren Baldintza Partikularretan Aseguru Hartzaileak kapital aseguratua handiagoa hitzartu badu zirkulazio-istripuen kasurako istripuen kasurako baino, eta Aseguratuak polizak estalitako zirkulazio-istripu baten ondoriozko Baliaezintasun Handi bat jasango balu, Erakunde Aseguratzailerak konpromisoa hartzen du izendatutako Onuradunari polizaren Baldintza Partikular horietan kasu horretarako ezarrita dagoen kapital aseguratua ordaintzeko.

**Baldintza Partikularretan zirkulazio-istripuagatiko Baliaezintasun Handiaren kasurako esleitutako kapital aseguratua zenbatekoa ezin da metatu istripu-kasuan berme horretarako adierazitakoarekin.**

Aseguru honen ondorioetarako, Aseguratuaren heriotza zirkulazio-istripu batengatik gertatu dela ulertuko da ondorengo istripu baten ondorioz hiltzen denean:

- Pertsonak garraia ditzakeen ibilgailu edo gailu batek oinez doan Aseguratu hiltzea.
- Pertsonak garraia ditzakeen lurreko ibilgailu edo gailu bat gidatzean edo bertan joatean hiltzea.
- Lurreko, itsasoko edo aireko garraio publikoetan doanean hiltzea.

### Ez dira estaltzen



Polizaren eskusio orokorrez gain, aplikatzekoak izango dira, halaber, Hartzaileak kontratatzea aukera dezakeen berme osagarrietarako ezarritako eskusio partikular guztiak.

# KONTRATATZEA AUKERAKO A DEN BERME OSAGARRIAK

## Baliaezintasun iraunkor absolutua

### Estaltzen dira



Hartzaileak Baldintza Partikularretan berme osagarri hau hitzartu badu, eta Aseguratuak baliaezintasun iraunkor absolutu bat jasango balu, **gaixotasun edo istripuagatik eta edozein lekutan**, Erakunde Aseguratzailak konpromisoa hartuko du izendatua dagoen Onuradunari polizaren Baldintza Partikularretan berme horretarako ezarrita dagoen kapital aseguratua ordaintzeko.

Berme hau kontratatzeko beharrezkoa izango da kapital aseguratuko zenbateko bat ezartzea bai gaixotasun-kasurako bai istripu-kasurako.

**Polizaren Baldintza Partikularretan ezarritako Ezintasun iraunkorreko berme desberdinen (Baliaezintasun Handiaren, Ezintasun Iraunkor Absolutuaren eta Ezintasun Iraunkor Osoaren) kapitalak ezingo dira inoiz ere metatu.**

Era osagarri eta aukerakoan, aseguratutako kapitalaren zenbatekoak handitu ahal izango dira **istripuen edo zirkulazio-istripuen kasuetarako eta Gaixotasunagatik kontratatutako kapitalaren bikoitza eta hirukoitza izango dira gehienez, hurrenez hurren.**

Aseguru honen ondorioetarako baliaezintasun iraunkor absolututzat joko da **Aseguratuaren borondatearekin zerikusirik izan gabe istripu edo gaixotasunagatik sortutako eta aseguratutako hori edozein lan-harreman edo jarduera profesional iraunkorki mantentzeko erabat ezgai egiten duen egoera fisiko atzeraezina.**

Aseguru Etxeak egiaztatu eta onartu ondoren berme osagarri honengatik egindako ordainketak berme hau eta Baliaezintasun Handiaren bermea azkentzea dakar, berme honetarako kontratatutako kapitala prestazioaren objektu den Ezintasun Iraunkor Absolutuaren kapitala baino handiagoa den kasuetan izan ezik; halakoetan, indarrean jarraituko du kontsumitu gabeko kapitalaren zatiagatik (kontratatutako kapitalaren eta egindako ordainketari dagokionaren arteko aldea) eta gradu txikiagoko Ezintasun Iraunkor Osoaren (Profesionalaren) berme osagarriaren zatiagatik, kontratatu izan balitz.

Polizak indarrean jarraituko du kontratatutako gainerako bermeei eta kapitalei dagokienez.

### Ez dira estaltzen



Polizaren eskusio orokorrez gain, aplikatzekoak izango dira, halaber, Hartzaileak kontratatzea aukera dezakeen berme osagarrietarako ezarritako eskusio partikular guztiak.

# ISTRIPUEN ETA ZIRKULAZIO-ISTRIPUEN KASURAKO AUKERAKO KONTRATAZIO OSAGARRIA

## Istripuagatiko baliaezintasun iraunkor absolutua

### Estaltzen dira



Polizaren Baldintza Partikularretan Hartzaileak **istripu-kasurako gaixotasun-kasurako baino kapital aseguratu handiagoa** hitzartuko balu, eta Aseguratuak polizak estalitako istripu baten ondorioz baliaezintasun iraunkor absolutu bat jasango balu, Erakunde Aseguratzailerak konpromisoa hartuko du izendatutako Onuradunari polizaren Baldintza Partikular horietan kasu horretarako ezarrita dagoen kapital aseguratua ordaintzeko.

Aseguru honen ondorioetarako, istripuagatiko baliaezintasun handitzat hartuko da **Aseguratuaren borondatezkoa ez den kanpo-gertaera bortitz eta bat-bateko baten zuzeneko ondorioengatik gorputz-lesio, galera anatomiko edo funtzional baten eraginez sortutako egoera fisiko atzeraezina, edozein eratako lan-harreman edo jarduera profesional iraunkorrik mantendu ezin izatea ekartzen duena, lesio horiek izan eta 18 hilabeteren barruan sortzen bada baliaezintasuna.**

Halaber, ondorengo arriskuak ere istriputzat joko dira:

- Gasen eta lurrunen ondorioz, edo urpean sartzearen ondorioz edo jatekoak ez diren gai likidoak edo solidoak irensteagatik sortutako barne-lesioak edo asfixia.
- Polizak estalitako istripu batetik sortutako infekzioak.
- Polizak estaltzen duen istripu baten ondorioz egindako ebakuntza kirurgikoen edo tratamendu medikoen ondorioz sortutako lesioak.

### Ez dira estaltzen



Polizaren eskusio orokorrez gain, aplikatzekoak izango dira, halaber, Hartzaileak kontratatzea aukera dezakeen berme osagarrietarako ezarritako eskusio partikular guztiak.

# ISTRIPUEN ETA ZIRKULAZIO-ISTRIPUEN KASURAKO AUKERAKO KONTRATAZIO OSAGARRIA

## Zirkulazio-istripuagatiko baliaezintasun iraunkor absolutua

### Estaltzen dira



Polizaren Baldintza Partikularretan Hartzaileak **kapital aseguratua handiagoa hitzartuko balu zirkulazio-istripuen kasurako istripuen kasurako baino**, eta Aseguratua polizak estalitako zirkulazio-istripu baten ondorioz Baliaezintasun iraunkor absolutu bat jasanez gero, Erakunde Aseguratzailleak konpromisoa hartuko du izendatutako Onuradunari polizaren Baldintza Partikularretan berme horretarako ezartzen den kapital aseguratua ordaintzeko.

**Baldintza Partikularretan zirkulazio-istripuagatiko Baliaezintasun Iraunkor Absolutuaren kasurako esleitutako kapital aseguruaren zenbatekoa ezin da metatu istripu-kasuan berme horretarako adierazitakoarekin.**

Aseguru honen ondorioetarako, Aseguruaren heriotza zirkulazio-istripu batengatik gertatu dela ulertuko da ondorengo istripu baten ondorioz hiltzen denean:

- Pertsonak garraia ditzakeen ibilgailu edo gailu batek oinez doan Aseguratua hiltzea.
- Pertsonak garraia ditzakeen lurreko ibilgailu edo gailu bat gidatzean edo bertan joatean hiltzea.
- Lurreko, itsasoko edo aireko garraio publikoetan doanean hiltzea.

### Ez dira estaltzen



Polizaren eskusio orokorrez gain, aplikatzekoak izango dira, halaber, Hartzaileak kontratatzea aukera dezakeen berme osagarrietarako ezarritako eskusio partikular guztiak.

## 1.Adibidea

Hartaileak poliza bat kontratatzen du ondorengo berme eta kapital aseguratuekin:

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	20.000 €
	Istripu baten kasuan	40.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	60.000 €
GAIXOTASUN LARRIAK	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	50.000 €
BALIAEZINTASUN HANDIA	Gaixotasun baten kasuan	60.000 €
	Istripu baten kasuan	120.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	180.000 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUA	Gaixotasun baten kasuan	60.000 €
	Istripu baten kasuan	120.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	180.000 €

→ **1.a.** Polizak estalitako zirkulazio-istripu baten ondorioz Aseguratua edozein lan era iraunkorrean egiteko behin betiko ezindua geratuko balitz, **180.000 €-ko** prestazioa jasoko du kontratatutako polizaren arabera.

Prestazio hori kobratu ondoren, **kontratutako Ezintasun Iraunkorreko bermeak deuseztatuko dira, kontratatutako kapital osoa kontsumitu izanagatik, eta indarrean geratuko da poliza kontratatutako gainerako berme eta kapitalekin bat etorritz:**

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	20.000 €
	Istripu baten kasuan	40.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	60.000 €
GAIXOTASUN LARRIAK	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	50.000 €

→ **1.b.** Aseguratua zirkulazioarekin zerikusirik ez duen eta poliza-estalduratik kanpo ez dagoen lan-istripu baten ondorioz hilko balitz, **40.000 €-ko** prestazioa jasoko du kontratatutako polizaren arabera.

Prestazio hori kobratu ondoren, **poliza deuseztatuta geratuko da eta horren berme guztiak inongo ondoriorik gabe.**

## 2.Adibidea

Hartzaileak poliza bat kontratatzen du ondorengo berme eta kapital aseguratuekin:

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	20.000 €
	Istripu baten kasuan	40.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	60.000 €
GAIXOTASUN LARRIAK	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	50.000 €
BALIAEZINTASUN HANDIA	Gaixotasun baten kasuan	100.000 €
	Istripu baten kasuan	200.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	300.000 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUA	Gaixotasun baten kasuan	60.000 €
	Istripu baten kasuan	120.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	180.000 €

→ **2.a.** Polizak estalitako zirkulazio-istripu baten ondorioz Aseguratua edozein lan era iraunkorrean egiteko behin betiko ezindua geratuko balitz, **180.000 €**-ko prestazioa jasoko du kontratatutako polizaren arabera.

Prestazio hori kobratutakoan, **kontratutako Ezintasun Iraunkor Absolutuaren bermea deuseztatuko da, kontratatutako kapital osoa kontsumitu izanagatik, eta Baliaezintasun Handiaren bermea mantenduko da kontsumitu gabeko zatiari dagokionez (kontratutako kapitalaren eta prestazioan abonatutakoaren arteko diferentzia), bai eta kontratatutako gainerako bermeak eta kapitalak ere:**

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	20.000 €
	Istripu baten kasuan	40.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	60.000 €
GAIXOTASUN LARRIAK	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	50.000 €
BALIAEZINTASUN HANDIA	Gaixotasun baten kasuan	40.000 €
	Istripu baten kasuan	80.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	120.000 €

→ **2.b.** Aseguratua polizak estalitako lan-istripu baten ondorioz galera anatomiko edo funtzionalekin behin betiko ezinduta geratzen bada eta horregatik beste pertsona baten laguntza behar badu eguneroko bizitzako egintza oinarrizkoenak egiteko (jantzi, mugitu, jan,...), **200.000 €-ko** prestazioa jasoko du kontratatutako polizaren arabera.

Prestazio hori kobratu ondoren, **kontratutako Ezintasun Iraunkorreko berme guztiak deuseztatuko dira, kontratatutako kapital osoa kontsumitu izanagatik, eta indarrean geratuko da poliza kontratatutako gainerako berme eta kapitalekin bat etorritz:**

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	20.000 €
	Istripu baten kasuan	40.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	60.000 €
GAIXOTASUN LARRIAK	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	50.000 €



# KONTRATATZEA AUKERAKOA DEN BERME OSAGARRIAK

## Baliaezintasun iraunkor osoa (profesionala)

### Estaltzen dira



Hartzaileak Baldintza Partikularretan berme osagarri hau hitzartu badu, eta Aseguratuak baliaezintasun iraunkor oso (profesional) bat jasango balu, **gaixotasun edo istripuagatik eta edozein lekutan**, Erakunde Aseguratzailerak konpromisoa hartuko du izendatua dagoen Onuradunari polizaren Baldintza Partikularretan berme horretarako ezarrita dagoen kapital aseguratua ordaintzeko.

Berme hau kontratatzeko beharrezkoa izango da kapital aseguratuko zenbateko bat ezartzea bai gaixotasun-kasurako bai istripu-kasurako.

**Polizaren Baldintza Partikularretan ezarritako Ezintasun iraunkorreko berme desberdinen (Baliaezintasun Handiaren, Ezintasun Iraunkor Absolutuaren eta Ezintasun Iraunkor Osoaren) kapitalak ezingo dira inoiz ere metatu.**

Era osagarri eta aukerakoan, aseguratutako kapitalaren zenbatekoak handitu ahal izango dira **istripuen edo zirkulazio-istripuen kasuetarako eta Gaixotasunagatik kontratatutako kapitalaren bikoitza eta hirukoitza izango dira gehienez, hurrenez hurren.**

Aseguru honen ondorioetarako baliaezintasun iraunkor osotzat (profesionaltzat) hartuko da **Aseguratuaren borondatez kanpo sortutako istripu edo gaixotasun batek eragindako egoera fisiko atzeraezina, polizan espresuki adierazitako bere ohiko lanbiderako edo bere prestakuntzari edo ezagutza profesionali dagokien antzeko jarduera baterako Aseguratua ezindua uzteko erabakigarria izan dena.**

Aseguru Etxeak egiaztatu eta onartu ondoren berme osagarri honengatik egindako ordainketak berme hau eta -kontratatu izan balira- gradu handiagoko Ezintasun iraunkorreko bermeak **Baliaezintasun Handia eta Ezintasun Iraunkor Absolutua** azkentzea dakar, berme hauetarako kontratatutako kapitala prestazioaren objektu den Ezintasun Iraunkor Osoarena baino handiagoa den kasuetan izan ezik; halakoetan, indarrean jarraituko dute kontsumitu gabeko kapitalaren zatiagatik (kontratutako kapitalaren eta egindako ordainketari dagokionaren arteko aldea).

**Polizak indarrean jarraituko du kontratatutako gainerako bermeei eta kapitalei dagokienez.**

### Ez dira estaltzen



Polizaren esklusio orokorrez gain, aplikatzekoak izango dira, halaber, Hartzaileak kontratatzea aukera dezakeen berme osagarrietarako ezarritako esklusio partikular guztiak.

# ISTRIPUEN ETA ZIRKULAZIO-ISTRIPUEN KASURAKO AUKERAKO KONTRATAZIO OSAGARRIA

## Istripuagatiko baliaezintasun iraunkor osoa (profesionala)

### Estaltzen dira



Polizaren Baldintza Partikularretan Hartzaileak **kapital aseguratu handiagoa hitzartuko balu istripu-kasurako gaixotasun-kasurako baino**, eta Aseguratuak polizak estalitako istripu baten ondorioz baliaezintasun iraunkor oso (profesional) bat jasango balu, Erakunde Aseguratzailleak konpromisoa hartuko du izendatutako Onuradunari polizaren Baldintza Partikular horietan kasu horretarako ezarrita dagoen kapital aseguratua ordaintzeko.

Aseguru honen ondorioetarako, istripuagatiko baliaezintasun iraunkor osotzat (profesionaltzat) hartuko da **Aseguratuaren borondatezkoa ez den kanpogertaera bortitz eta bat-bateko baten zuzeneko ondorioengatik gorputz-lesio baten eraginez sortutako egoera fisiko atzerazina, polizan espresuki adierazitako bere ohiko lanbidea edo bere prestakuntzari edo ezagutza profesionali dagokien antzeko jardura bat mantendu ezin izatea ekartzen duena, lesio horiek izan eta 18 hilabeteren barruan sortzen bada baliaezintasuna.**

Halaber, ondorengo arriskuak ere istripuztat joko dira:

- Gasen eta lurrunen ondorioz, edo urpean sartzearen ondorioz edo jatekoak ez diren gai likidoak edo solidoak irensteagatik sortutako barne-lesioak edo asfixia.
- Polizak estalitako istripu batetik sortutako infekzioak.
- Polizak estaltzen duen istripu baten ondorioz egindako ebakuntza kirurgikoen edo tratamendu medikoen ondorioz sortutako lesioak.

### Ez dira estaltzen



Polizaren eskusio orokorreaz gain, aplikatzekoak izango dira, halaber, Hartzaileak kontratatzea aukera dezakeen berme osagarrietarako ezarritako eskusio partikular guztiak.

# ISTRIPUEN ETA ZIRKULAZIO-ISTRIPUEN KASURAKO AUKERAKO KONTRATAZIO OSAGARRIA

## Zirkulazio-istripuagatiko baliaezintasun iraunkor osoa (profesionala)

### Estaltzen dira



Polizaren Baldintza Partikularretan Hartzaileak **kapital aseguratutako handiagoko hitzartutako balu zirkulazio-istripuen kasurako istripuen kasurako baino**, eta Aseguratuak polizak estalitako zirkulazio-istripu baten ondorioz baliaezintasun iraunkor oso (profesional) bat jasango balu, Erakunde Aseguratzailerak konpromisoa hartuko du izendatutako Onuradunari polizaren Baldintza Partikular horietan kasu horretarako ezarrita dagoen kapital aseguratua ordaintzeko.

**Baldintza Partikularretan zirkulazio-istripuagatiko baliaezintasun iraunkor osoaren (profesionalaren) kasurako esleitutako kapital aseguratuen zenbatekoa ezin da metatu istripu-kasuan berme horretarako adierazitakoarekin.**

Aseguru honen ondorioetarako ondorengo istripuak hartuko dira zirkulazio-istriputzat:

- Pertsonak garraia ditzakeen ibilgailu edo gailu batek oinez doan Aseguratu hiltzea.
- Pertsonak garraia ditzakeen lurreko ibilgailu edo gailu bat gidatzean edo bertan joatean hiltzea.
- Lurreko, itsasoko edo aireko garraio publikoetan doanean hiltzea.

### Ez dira estaltzen



Polizaren eskusio orokorreaz gain, aplikatzekoak izango dira, halaber, Hartzaileak kontratatzea aukera dezakeen berme osagarrietarako ezarritako eskusio partikular guztiak.

## 1.adibidea

Hartaileak poliza bat kontratatzen du ondorengo berme eta kapital aseguratuekin:

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	20.000 €
	Istripu baten kasuan	40.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	60.000 €
GAIXOTASUN LARRIAK	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	50.000 €
BALIAEZINTASUN HANDIA	Gaixotasun baten kasuan	60.000 €
	Istripu baten kasuan	120.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	180.000 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUA	Gaixotasun baten kasuan	60.000 €
	Istripu baten kasuan	120.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	180.000 €

→ **1.a.** Polizak estalitako gaixotasun baten ondorioz Aseguratua edozein lan era iraunkorrean egiteko behin betiko ezindua geratuko balitz, **60.000 €-ko** prestazioa jasoko du kontratatutako polizaren arabera.

Prestazio hori kobratu ondoren, **kontratutako Ezintasun Iraunkorraren (Handia eta Absolutua) bermeak iraungiko dira, kontratatutako kapital osoa kontsumitu izanagatik, eta indarrean geratuko da poliza kontratatutako gainerako berme eta kapitalekin bat etorriz:**

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	20.000 €
	Istripu baten kasuan	40.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	60.000 €
GAIXOTASUN LARRIAK	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	50.000 €

→ **1.b.** Aseguratuak bere ohiko jarduera era iraunkorrean egiteko behin betiko ezgai uzten duen baliaezintasun bat jasango balu, ez da inongo prestaziorik emango kontratatutako bermeen arabera, baliaezintasun iraunkor oso bat litzatekeelako.

Hala ere, **polizak indarrean jarraituko du kontratatutako berme eta kapitalekin bat,** eta horrela edozein lan-jarduera garatzea eragozten dion baliaezintasunaren arrazoia geroago larriagotuko balitz, dagokion prestazioa ordainduko litzateke.

## 2.adibidea

Hartzaileak poliza bat kontratatzen du ondorengo berme eta kapital aseguratuekin:

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	10.000 €
	Istripu baten kasuan	20.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	30.000 €
GAIXOTASUN LARRIAK	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	50.000 €
BALIAEZINTASUN HANDIA	Gaixotasun baten kasuan	60.000 €
	Istripu baten kasuan	120.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	180.000 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUA	Gaixotasun baten kasuan	60.000 €
	Istripu baten kasuan	120.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	180.000 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR OSOA (PROFESIONALA)	Gaixotasun baten kasuan	60.000 €
	Istripu baten kasuan	120.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	180.000 €

→ 2.a. Polizak estalitako lan istripu baten ondorioz Aseguratuak bere ohiko jardura era iraunkorrean egiteko behin betiko ezgai uzten duen baliaezintasun bat jasango balu, 120.000 €-ko prestazioa jasoko du kontratatutako polizaren arabera.

Prestazio hori kobratu ondoren, kontratatutako Ezintasun Iraunkorraren (Handia, Absolutua eta Osoa) bermeak iraungiko dira, kontratatutako kapital osoa kontsumitu izanagatik, eta indarrean geratuko da poliza kontratatutako gainerako berme eta kapitalekin bat etorritz:

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	10.000 €
	Istripu baten kasuan	20.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	30.000 €
GAIXOTASUN LARRIAK	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	50.000 €



→ **2.b.** Polizak estalitako gaixotasun arrunt baten ondorioz Aseguratua bere ohiko lanbidea era iraunkorrean egiteko behin betiko ezindua geratuko balitz, **60.000 €-ko** prestazioa jasoko du kontratatutako polizaren arabera.

**Prestazio hori kobratu ondoren, kontratatutako Ezintasun Iraunkorraren (Handia, Absolutua eta Osoa) bermeak iraungiko dira, kontratatutako kapital osoa kontsumitu izanagatik, eta indarrean geratuko da poliza kontratatutako gainerako berme eta kapitalekin bat etorritz:**

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	10.000 €
	Istripu baten kasuan	20.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	30.000 €
GAIXOTASUN LARRIAK	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	50.000 €

### 3.adibidea

Hartzaileak poliza bat kontratatzen du ondorengo berme eta kapital aseguratuekin:

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	10.000 €
	Istripu baten kasuan	20.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	30.000 €
GAIXOTASUN LARRIAK	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	50.000 €
BALIAEZINTASUN HANDIA	Gaixotasun baten kasuan	100.000 €
	Istripu baten kasuan	200.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	300.000 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUA	Gaixotasun baten kasuan	60.000 €
	Istripu baten kasuan	120.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	180.000 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR OSOA (PROFESIONALA)	Gaixotasun baten kasuan	30.000 €
	Istripu baten kasuan	60.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	90.000 €

→ **3.a.** Aseguratua polizak estalitako lan-istripu baten ondorioz galera anatomiko edo funtzionalekin behin betiko ezinduta geratzen bada eta horregatik beste pertsona baten laguntza behar badu eguneroko bizitzako egintza oinarritzkoenak egiteko (jantzi, mugitu, jan,...), **300.000 €**-ko prestazioa jasoko du kontratatutako polizaren arabera.

Prestazio hori kobratu ondoren, **kontratutako Ezintasun Iraunkorreko (Handi, Absolutua eta Osoa) berme guztiak deuseztatuko dira, kontratatutako kapital osoa kontsumitu izanagatik, eta indarrean geratuko da poliza kontratatutako gainerako berme eta kapitalekin bat etorritz:**

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	10.000 €
	Istripu baten kasuan	20.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	30.000 €
GAIXOTASUN LARRIAK	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	50.000 €

→ **3.b.** Polizak estalitako gaixotasun baten ondorioz Aseguratua edozein lan era iraunkorrean egiteko behin betiko ezindua geratuko balitz, **60.000 €**-ko prestazioa jasoko du kontratatutako polizaren arabera.

Prestazio hori kobratutakoan, **kontratutako Ezintasun Iraunkorraren (Absolutua eta Osoa) bermeak iraungiko dira, kontratatutako kapital osoa kontsumitu izanagatik, eta Baliaezintasun Handiaren bermea mantenduko da kontsumitu gabeko zatiari dagokionez (kontratutako kapitalaren eta prestazioan abonatuakoaren arteko diferentzia), eta kontratatutako gainerako bermeak eta kapitalak ere bai:**

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	10.000 €
	Istripu baten kasuan	20.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	30.000 €
GAIXOTASUN LARRIAK	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	50.000 €
BALIAEZINTASUN HANDIA	Gaixotasun baten kasuan	40.000 €
	Istripu baten kasuan	80.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	120.000 €

→ **3.c.** Polizak estalitako gaixotasun arrunt baten ondorioz Aseguratua bere ohiko lanbidea era iraunkorrean egiteko behin betiko ezindua geratuko balitz, **30.000 €**-ko prestazioa jasoko du kontratatutako polizaren arabera.

Prestazio hori kobratutakoan, **kontratutako Ezintasun Iraunkor Osoaren bermea iraungiko da, kontratatutako kapital osoa kontsumitu izanagatik, eta Baliaezintasun Handiaren bermea mantenduko da kontsumitu gabeko zatiari dagokionez (kontratutako kapitalaren eta prestazioan abonatuakoaren arteko diferentzia), eta kontratatutako gainerako bermeak eta kapitalak ere bai:**

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	10.000 €
	Istripu baten kasuan	20.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	30.000 €
GAIXOTASUN LARRIAK	Gaixotasuna edo istripua izanez gero	50.000 €
BALIAEZINTASUN HANDIA	Gaixotasun baten kasuan	70.000 €
	Istripu baten kasuan	140.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	210.000 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUA	Gaixotasun baten kasuan	30.000 €
	Istripu baten kasuan	60.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	90.000 €



# ISTRIPUEN ETA ZIRKULAZIO-ISTRIPUEN KASURAKO AUKERAKO KONTRATAZIO OSAGARRIA

## Istripuagatiko eta Zirkulazio istripuagatiko baliaezintasun iraunkor partziala (baremoaren arabera) eta absolutua

### Estaltzen dira

Aseguru Hartzaileak polizaren Baldintza Partikularretan berme osagarri hau hitzartu badu eta Aseguratuak polizan estalitako istripu baten ondorioz Ezintasun Iraunkor Partziala sortuz gero, Aseguru-entitateak konpromisoa hartzen du izendatua dagoen Onuradunari polizaren Baldintza Orokor hauetan ezarritako Baremoaren eta haren arau aplikagarrien arabera gorputz-lesio eta ondorioei dagokien kalte-ordainaren ehuneko ordaintzeko, polizaren Baldintza Partikularretan Absolutuaren graduko Ezintasun Iraunkorreko bermearen istripuen eta trafiko-istripuen kasuetarako kontratatutako eta ezarritako kapital aseguruaren gainean.

Berme osagarri hau kontratatu ahal izateko nahitaezkoa da gradu Absolutuko Ezintasun Iraunkorreko berme osagarria kontratatzea; berme hori, era osagarri eta aukerakoan, gaixotasunaren kapitala baino kapital handiago batekin kontratatu ahal izango da istripuen eta trafiko-istripuen kasuetarako, eta Gaixotasunagatik kontratatutako kapitalaren bikoitza eta hirukoitza izango da gehienez, bermeetako bakoitza definitzen den atalean ezartzen den bezala.

**Baldintza Partikularretan zirkulazio-istripuagatiko kasurako esleitutako kapital aseguruaren zenbatekoa ezin da metatu istripu-kasuan berme horretarako adierazitakoarekin.**

**Gradu Absolutuko Ezintasun Iraunkorraren berme osagarrirako aseguratutako kapitalaren % 100eko ordainketak, Aseguru Etxeak egiaztatu eta onartu ondoren, berme hau eta Baliaezintasun Handiarena azkentzea dakar, berme honetarako kontratatutako kapitala prestazioaren objektu den Ezintasun Iraunkor Absolutuarena baino handiagoa den kasuetan izan ezik; halakoetan, indarrean jarraituko du kontsumitu gabeko kapitalaren zatiagatik (kontratutako kapitalaren eta egindako ordainketari dagokionaren arteko aldea) eta gradu txikiagoko Ezintasun Iraunkor Osoaren (Profesionalaren) berme osagarriaren zatiagatik, kontratatu izan balitz.**

Aseguru honen ondorioetarako Istripuagatiko baliaezintasun iraunkor partzialtzat (baremoaren arabera) hartuko da polizak estalitako istripu batek eragindako gorputz-lesioen ondoriozko galera anatomikoa edo gorputz-atal edo organoen ezintasun funtzionala, izendatutako peritu medikoen arabera sendatuko ez dela aurreikusten denean eta lesio horrek baliaezintasuna istripua gertatu ondorengo urtearen barruan sortzen duenean.

Aseguru honen ondorioetarako istriputzat joko da kausa bortitz, bat-bateko, kanpoko eta aseguratuaren asmoez edo borondateaz bestelako batetik sortzen den edozein gorputz-lesio.

Halaber, ondorengo arriskuak ere istriputzat joko dira:

- Gasen eta lurrunen ondorioz, edo urpean sartzearen ondorioz edo jatekoak ez diren gai likidoak edo solidoak irensteagatik sortutako barne-lesioak edo asfixia.
- Polizak estalitako istripu batetik sortutako infekzioak.
- Polizak estaltzen duen istripu baten ondorioz egindako ebakuntza kirurgikoen edo tratamendu medikoen ondorioz sortutako lesioak.

Aseguru honen ondorioetarako ondorengo istripuak hartuko dira zirkulazio-istriputzat:

- Pertsonak garraia ditzakeen ibilgailu edo gailu batek oinez doan Aseguratua hiltzea.
- Pertsonak garraia ditzakeen lurreko ibilgailu edo gailu bat gidatzean edo bertan joatean hiltzea.
- Lurreko, itsasoko edo aireko garraio publikoetan doanean hiltzea.

## Ez dira estaltzen



Polizaren eskusio orokorrez gain, aplikatzekoak izango dira, halaber, Hartzaileak kontratatzea aukera dezakeen berme osagarrietarako ezarritako eskusio partikular guztiak.

# BAREMOA

Berme osagarri honengatik jasotako kalte-ordainen zenbatekoa finkatzeko, ondorengo kalte-ordainen ehunekoak aplikatuko dira berme honetarako ezarritako kapital aseguratuan:

## BALIAEZINTASUN-MOTA

KALTE-ORDAINAREN  
ZENBATEKOA

### Burua eta nerbio-sistema

- Erabateko erotasuna .....	100
- Epilepsia mailarik gorenean .....	60
- Erabateko itsutasuna .....	100
- Begi bateko ikusmena galtzea, edo bi begietako ikusmena erdiraino galtzea...	25
- Aldebakarreko katarata traumatiko operatua (afakia) .....	5
- Erabateko gorreria .....	65
- Belarri baten erabateko gorreria .....	15
- Usaimena edo dastamena erabat galtzea .....	5
- Mututasun erabatekoa, soinu koherenteak ateratzeko ezintasunarekin ....	50

### Bizkarrezurra

- Paraplegia .....	100
- Koadriplegia .....	100
- Konplikazio neurologikorik edo bizkarrezurreko deformazio larririk gabeko orno-hausturen ondorioz sortutako mugikortasun-murrizketak: % 3koa erasandako orno bakoitzeko, eta gehienez ere .....	20

### Toraxa, abdomena eta aparatu genitourinarioa

- Birika bat galtzea edo birika-ahalmena % 50era murriztea .....	20
- Hernia diafragmatikoa.....	10
- Nefrektomia .....	10
- Esplenektomia .....	5
- Natura kontrako uzkia .....	20

### Goiko gorputz-adarrak

- Beso bat moztea besahezurraren artikulaziotik behera.....	70
- Beso bat moztea ukondoaren paretik edo haren gainetik .....	65
- Beso bat moztea ukondotik behera .....	60
- Esku bat moztea eskumuturraren paretik edo haren azpitik .....	55
- Esku bateko lau hatz moztea .....	50
- Erpuru bat moztea .....	20
- Hatz erakuslea erabat moztea edo hatz horren bi falange moztea .....	10
- Beste edozein hatz erabat moztea edo horren bi falange moztea .....	5
- Sorbaldaren mugimendua osorik galtzea .....	35
- Ukondoaren mugimendua osorik galtzea .....	20
- Nerbio erradial, kubital edo medianoaren erabateko paralisia .....	25
- Eskumuturraren mugimendua osorik galtzea .....	20

## BALIAEZINTASUN-MOTA

KALTE-ORDAINAREN  
ZENBATEKOA

### Pelbisa eta beheko gorputz-adarrak

- Aldaka baten mugimendua osorik galtzea .....	30
- Hanka bat moztea belauneko artikulazioaren gainetik .....	60
- Hanka bat moztea belauneko artikulazioa galdu gabe .....	55
- Oin bat moztea .....	40
- Oin bat partzialki moztea orpoa galdu gabe .....	20
- Behatz lodi bat moztea .....	10
- Oineko beste edozein behatz moztea .....	2
- Kanpoko ziatiko popliteoaren erabateko paralisia .....	15
- Belaun baten mugimendua osorik galtzea .....	20
- Orkatila baten mugimendua osorik galtzea .....	15
- Orpo-hezur bat haustearen ondorioz ibiltzeko zailtasun larriak edukitzea .....	10

## Baremoa aplikatzeko arauak

Aurreko baremoa aplikatzerakoan ondorengo arau hauek hartuko dira kontuan:

→ Goiko gorputz-adarrei dagozkien kalte-ordainaren portzentajeak % 15ean murriztuko dira ez badira alde nagusiko gorputz-adarrak (eskuina den pertsonaren ezkerreko gorputz-adar bateko lesioak, eta alderantziz), oin baten mozketarekin batera gaiten den esku baten mozketaren kasuan salbu.

→ Aseguratuaren lanbidez eta adinaz landa finkatuko dira kalte-galerak, eta baremoarekin zerikusirik ez duen beste edozein faktore kontuan hartu gabe.

→ Istripu beretik etorritako baliaezintasun-mota bat baino gehiago daudenean metatu egingo dira horiei dagozkien kalte-ordainen ehunekoak, gehienez ere berme osagarri honetarako aseguraturutako kapitalaren % 100era iritsi arte.

→ Gorputz-adar edo organo baten ezintasun funtzional absolutu eta iraunkorra erabat galdu izan balitz bezala hartuko da.

→ Gorputz-adar edo organo berean ezintasun partzial bat baino gehiago badaude, ezintasun horien ehuneko guztien batura ezingo da gorputz-adar edo organo hori erabat galtzen denerako finkatutako ehunekoa baino handiagoa izan.

→ Baremoan zehazki azaltzen ez diren baliaezintasun-motei dagozkien ehunekoak baremoan agertzen diren antzeko beste batzuekin duten analogiaren arabera finkatuko dira.

- Izaera partzialeko murrizketa eta galera anatomikoen kasuan, kalte-ordainak kaltetutako gorputz-adar edo organoaren erabateko ezintasun funtzionalaren edo galeraren proportzioan emango dira.
- Istripu batean kaltetutako gorputz-adar edo organo batek aurretik anputazioak edo muga funtzionalak bazituen, aplikatuko den kalte-ordainaren ehunekoa finkatzeko aldeztu aurretik zegoen baliaezintasunaren eta istripuaren ondoriozko baliaezintasunaren ehunekoen arteko aldea hartuko da kontuan.
- Baliaezintasun-maila, behin betiko kalte-ordainen ondorioetarako, Aseguru Etxeak ezarriko du Aseguratuaren egoera fisikoa medikuak behin betikotzat ematen duenean, eta dagokion ezintasun medikoaren ziurtagiria aurkezten duenean. Istripua izan denetik 12 hilabeteko epea pasatu ondoren ezingo balitz finkapen hori egin, Aseguratuak ahalmena izango du Aseguru Etxeari beste 12 hilabeteko epea eskatzeko, eta, hau pasatu ondoren, Aseguru Etxeak baliaezintasuna finkatu beharko du, behin betiko geratuko dela pentsatzen denaren arabera.
- Ondorioen koadroa polizaren Baldintza Orokor hauetako baremoan zehazki jasota ez dagoenean, baremo ofizial eta publikoetara joko da eta aztertutako kasurako egokia den baremoen arteko egokitzapena egingo da. Esaterako IMSERSOk eta Foru Aldundietako Gizarte Ongizateko arloak erabilitako “Minusbalotasun-maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretua” hartuko da.



# KONTRATATZEA AUKERAKO DEN BERME OSAGARRIAK

## Istripuagatiko laneko baja

### Estaltzen dira

Hartzaileak polizaren Baldintza Partikularretan berme osagarri hau hitzartu badu, eta **polizak estalitako istripu baten ondorioz bere osasun-egoera aldatu eta aldi batean** polizaren Baldintza Partikularretan **deklaraturako ohiko lanbide edo lan-jarduera lanaldi osoan garatzeko ezindua** egongo balitz, Erakunde Aseguratzailleak konpromisoa hartuko du izendaturako Onuradunari, bajaren datatik aurrera eta **gehienez ere istriputik 365 egunera bitartean**, Baldintza Partikularretan jasotako egun bakoitzeko kapital aseguratua zenbatekoa ordaintzeko.

**Polizaren Baldintza Partikularretan berme honetarako frankizia-aldi bat hitzartuta egongo balitz, kontratatutako kapital aseguratua eguneko zenbatekoa frankizia-aldia amaitutakoan sorraraziko da, eta gehienez ere 365 eguneko estaldura-epaen gainerako denboran iraungo du.**

Erakunde Aseguratzaillearen kargurako prestazioa **aldi bakar batean** ordainduko da, peritu-zerbitzuek alta medikoa ematea erabakitzen duten egunetik edo 365 eguneko gehieneko epea amaitzen denetik aurrera.

Hala ere, Aseguratuak eskatuz gero, Erakunde Aseguratzailleak **zenbait kopuru aurrerratu ahal izango dizkio prestazio osoaren kontura.**

**Berme osagarri honen estalduraren esparru geografikoa** Europan, AEBn eta Kanadan gertatutako istripuetara mugatzen da, salbu polizaren Baldintza Partikularretan estaldura mundu osora zabaltzea hitzartzen bada edota ondorio horietarako estaldura-esparru jakin bat zehazten bada, dagokion errekargua edo gainprima ordaintzearen truke.

**Aseguru honen ondorioetarako istriputzat joko da kausa bortitz, bat-bateko, kanpoko eta aseguratuaen asmoez edo borondateaz bestelako batetik sortzen den edozein gorputz-lesio.**

Halaber, ondorengo arriskuak ere istriputzat joko dira:

- Gasen eta lurrunen ondorioz, edo urpean sartzearen ondorioz edo jatekoak ez diren gai likidoak edo solidoak irensteagatik sortutako barne-lesioak edo asfixia.
- Polizak estalitako istripu batetik sortutako infekzioak.
- Polizak estaltzen duen istripu baten ondorioz egindako ebakuntza kirurgikoen edo tratamendu medikoen ondorioz sortutako lesioak.

## Ez dira estaltzen



Polizaren eskusio orokorreaz gain, aplikatzekoak izango dira, halaber, Hartzaileak kontratatzea aukera dezakeen berme osagarrietarako ezarritako eskusio partikular guztiak.

## Kapital aseguruaren eguneko zenbatekoa sorrarazteko arau aplikagarriak

### → Estalduraren definizioa eta norainokoa

Berme osagarri honen ondorioetarako estalduraren definizioak eta norainokoak ez dituzte Gizarte Segurantzaren sistema publikoaren definizio- eta kalifikazio-irizpide berak jarraitzen. Beraz, estaldura horren kalifikazioa aseguru-kontratu honen arabera definitzen eta zehazten da eskusiboki, eta Erakunde Aseguratzaillearen peritu eta inspektore medikoen zerbitzuaren balorazioa hartuko da kontuan. Desadostasunik egonez gero, Aseguru Kontratuei buruzko 50/1980 Legearen 38. artikulua (perituen arteko arbitrajea) ezarritakoari jarraituko zaio.

### → Laguntza medikoa eta tratamendu mediko jarraitua

Nolanahi ere, istripuaren ondorioz Aseguratuak laguntza medikoa jaso beharko du, baita prozesua sendatzeko beharrezko tratamendu medikoa ere jarraituan.

### → Aldi baterako lanerako desgaitasuna osoa

Istripuaren ondoriozko osasun-egoeraren aldatzeak lan-jarduera edo jardueraren profesionala garatzea erabat galarazi beharko dio Aseguratuari aldi baterako, eta arrazoia klinikoki azaldu ahal izan beharko da.

### **Prestazioaren eguneko zenbatekoa sorrarazteko eskubidea amaitzeko kasuak:**

- Aseguratuak bere ohiko jardueraren profesionali edo lan-jarduerari berriz heldu diezaiekeenean, era partzialan bada ere, nahiz eta oraindik erabat sendatu ez.
- Aseguratuak preskripzio terapeutikoak betetzen ez dituztenean edo uko egiten dienean.
- Medikoki diagnostikatu daitekeen istripuaren ondoriozko osasun-egoeraren aldatzea polizaren Baldintza Partikularretan deklaratuako lan-jarduera edo jardueraren profesionala garatzeko baliaezintasun iraunkor bihurtu dela.
- Istripua gertatzen denetik 365 eguneko gehieneko estaldura-epaia amaitzen denean, polizaren Baldintza Partikularretan jasotzen den frankizia-aldia barne, halakorik balego.



### → Estalduraren gehieneko epea

Aseguratuak estalduraren 365 eguneko gehieneko epea agortuko ez balu eta prozesu beragatik edo horrekin lotutako arrazoiengatik laneko bajako beste aldi bat hasiko balitz, aurrekoaren luzapentzat hartuko da ondorio guztietarako.

Istripu berak Aseguratuari sortutako osasun-egoeraren alterazioengatik eguneko zenbatekoak sorrarazi diren egunen baturak ezin izango du gainditu estalduraren 365 eguneko gehieneko epea, polizaren Baldintza Partikularretan jasotzen den frankizia-aldia barne, halakorik balego.

# KONTRATATZEA AUKERAKOA DEN BERME OSAGARRIAK

## Istripuagatik ospitaleratzeagatiko kalte-ordaina

### Estaltzen dira



Hartzaileak polizaren Baldintza Partikularretan berme osagarri hau hitzartu badu, eta Aseguratua **osasan-zentro, klinika edo ospitale batean 48 ordutik gora era jarraituan ospitalerata egongo balitz polizak estalitako istripu batek bere osan-egoeraren aldatzearen ondorioz**, Erakunde Aseguratzailerak konpromisoa hartuko du izendatutako Onuradunari, **ospitaleratzearen datatik altaren egunera, eta gehienez ere istripua gertatu zenetik 365 egunera**, Baldintza Partikularretan jasotako kapital aseguruaren eguneko zenbatekoa ordaintzeko.

**Ospitaleratzearen eguna kontuan hartuko da kalte-ordainaren eguneko zenbatekoaren iraupena zehazteko**, ez ordea ospitaleko alta-eguna. Azken horrengatik Aseguratuak ez du eskubiderik izango berme honetarako kontratatutako kapitalaren eguneko zenbatekoa sorrarazteko.

Erakunde Aseguratzaileraren kargurako prestazioa edo kalte-ordaina **aldi bakar batean** ordainduko da, osan-zentroaren ospitaleko altaren txosten medikoa jasotzen den egunetik edo 365 eguneko epea amaitzen denetik aurrera. Hala ere, Aseguratuak eskatuz gero, Erakunde Aseguratzailerak **zenbait kopuru aurreratu ahal izango dizkio prestazio osoaren kontura**. Ez dira osan-establezimendu edo -zentroetan egindako ospitaleratzetat hartuko bainuetxeetan eta antzekoetan egindako egonaldiak, ezta helburu terapeutikoekin egiten badira ere.

Berme osagarri honen estalduraren esparru geografikoa Europan, AEBn eta Kanadan gertatutako istripuetara mugatzen da, salbu polizaren Baldintza Partikularretan estaldura mundu osora zabaltzea hitzartzen bada edota estaldura-esparru jakin bat zehazten bada, dagokion erreklama edo gainprima ordaintzearen truke.

Aseguru honen ondorioetarako istriputzat joko da kausa bortitz, bat-bateko, kanpoko eta Aseguruaren asmoez edo borondateaz bestelako batetik sortzen den edozein gorputz-lesio.

Halaber, ondorengo arriskuak ere istriputzat joko dira:

- Gasen eta lurrunen ondorioz, edo urpean sartzearen ondorioz edo jatekoak ez diren gai likidoak edo solidoak irenstegatik sortutako barne-lesioak edo asfixia.
- Polizak estalitako istripu batetik sortutako infekzioak.
- Polizak estaltzen duen istripu baten ondorioz egindako ebakuntza kirurgikoen edo tratamendu medikoen ondorioz sortutako lesioak.

## Ez dira estaltzen



Polizaren esklusio orokorrez gain, aplikatzekoak izango dira, halaber, Hartzaileak kontratatzea aukera dezakeen berme osagarrietarako ezarritako esklusio partikular guztiak.

# KONTRATATZEA AUKERAKO DEN BERME OSAGARRIAK

## Istripuagatiko osasun-gastuen itzulketa

### Estaltzen dira



Hartzaileak polizaren Baldintza Partikularretan berme osagarri hau hitzartu badu, Erakunde Aseguratzailleak konpromisoa hartuko du izendatutako Onuradunari, **istripua gertatzen denetik gehienez ere 365 egunera bitarteko epean** eta polizaren Baldintza Partikularretan berme honetarako ezarrita dagoen **aseguratutako kapitalaren gehieneko mugara arte**, ondorengoak ordaintzeko:

- **Laguntza medikoak, ambulantiak, farmaziak, ospitaleratzeak eta errehabilitazio fisikoak eragindako gastuak.**
- **Protesi edo aparatu ortopediko funtzionalak, polizaren Baldintza Partikularretan berme osagarri honetarako ezarrita dagoen kapital aseguruaren % 5eko mugara arte.**

Berme osagarri honek ez ditu estaltzen gorputz-atal edo organoen transplanteak, kirurgia plastikoa, tratamendu estetikoak edota lehendikako protesietan izandako kalteak.

Erakunde Aseguratzailleak espresuki onartutako medikuek eman beharko dute laguntza medikoa; bestela, Aseguratuak bere gain hartuko du berme osagarri honi egozgarri zaizkion gastuen erdia. Hala eta guztiz ere, Erakunde Aseguratzailleak osorik ordainduko ditu larrialdiko laguntzatik edo lehen sorospenetatik eratorritako gastuak, laguntza norik eman duen kontuan hartu gabe.

Aseguru Etxeak estalita dauden gastuen zenbatekoa itzuliko dio Aseguratuari, dagozkion fakturak aurkeztu ondoren, salbu Erakunde Aseguratzailleak osasun-zentroarekin zerbitzuaren kostua zuzenean ordaintzea hitzartu badu.

Berme osagarri honen estalduraren esparru geografikoa Europan, AEBn eta Kanadan gertatutako istripuetara mugatzen da, salbu polizaren Baldintza Partikularretan estaldura mundu osora zabaltzea hitzartzen bada edota estaldura-esparru jakin bat zehazten bada, dagokion errenergua edo gainprima ordaintzearen truke.

Aseguru honen ondorioetarako istripuztat joko da kausa bortitz, bat-bateko, kanpoko eta Aseguruaren asmoez edo borondateaz bestelako batetik sortzen den edozein gorputz-lesio.

**Halaber, ondorengo arriskuak ere istripuztat joko dira:**

- Gasen eta lurrunen ondorioz, edo urpean sartzearen ondorioz edo jatekoak ez diren gai likidoak edo solidoak irensteagatik sortutako barne-lesioak edo asfixia.
- Polizak estalitako istripu batetik sortutako infekzioak.
- Polizak estaltzen duen istripu baten ondorioz egindako ebakuntza kirurgikoen edo tratamendu medikoen ondorioz sortutako lesioak.

## Ez dira estaltzen



Polizaren eskusio orokorrez gain, aplikatzekoak izango dira, halaber, Hartzaileak kontratatzea aukera dezakeen berme osagarrietarako ezarritako eskusio partikular guztiak.

## Osasun-gastuak itzultzeko arau aplikagarriak:

→ Aseguratuak berme hau beste aseguru-kontratu batzuekin estalita duenean, Erakunde Aseguratzailerak lagundu egingo du laguntza medikoaren gastuak ordaintzen, berak emandako bermearen eta Aseguratuak osorik lortu duen estalduraren artean dagoen proportzioan.

→ Berme honen helburu bakarra da Aseguratuari mota horretako gastuen zenbatekoa, ezarritako mugen barruan, berreskuratzen laguntzea, eta hortik ezingo da, beraz, inolako irabazi edo mozkinik atera. Beraz, osasun-laguntzako gastuek erabat edo partzialki beste hirugarren pertsona, aseguru-organismo edo bestelakorik tartean hartuko balute, Erakunde Aseguratzailerak honek orduan, bere mugen barruan, Aseguratuaren kontura geratzen diren gastuak bakarrik ordaindu beharko ditu.

→ Espainiako lurraldean gertatutako istripuengatik aseguruari ematen zaion laguntza lurralde horren barruan eman beharko zaio; Europar gertatzen direnengatik ematen zaiona, aldiz, istripua gertatutako lekuan edota Espainiako lurraldean eman ahal izango zaio.

→ Kanpo gelditzen dira:

→ Istripua izan duena Espainiako lurraldera itzultzeko gastuak, Erakunde Aseguratzailerak erabiliko diren garraibideak espresuki baimentzen dituenean salbu..

→ Hotel, egoitza eta antzeko establezimenduetako egonaldi-gastuak, Aseguratuak, medikuaren aginduz, itzulera-bidaiarik egin ezin duenean izan ezik.

→ Atzerrian jasotako laguntza medikoa, tratamendua egiten den herrialdean izandako istripu batengatik ematen dena, Erakunde Aseguratzailerak onartutako medikuek emandakotzat hartzen da, eta alde horretatik ez da izango baimen espresik eman beharrik. Erakunde Aseguratzailerak itzuli egingo dizkio gastu horiek Aseguratuari, aurrez dagozkion fakturak aurkeztu ondoren, eta ordainketa Espainiako monetare.

## 1.adibidea

## Hartzaileak poliza bat kontratatzen du ondorengo berme eta kapital aseguratuekin:

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	10.000 €
	Istripu baten kasuan	20.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	30.000 €
BALIAEZINTASUN HANDIA	Gaixotasun baten kasuan	100.000 €
	Istripu baten kasuan	200.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	300.000 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUA Istripugatiko eta Zirkulazio-istripugatiko baliazintasun iraunkor partziala (baremoaren arabera) barne hartzen da	Gaixotasun baten kasuan	50.000 €
	Istripu baten kasuan	100.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	150.000 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR OSOA (PROFESIONALA)	Gaixotasun baten kasuan	25.000 €
	Istripu baten kasuan	50.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	75.000 €
LANEKO BAJA	Istripu baten kasuan	30 € 7 eguneko frankizia
OSPITALERATZEAGATIKO KALTE-ORDAINA	Istripu baten kasuan	30 €
OSASUN-GASTUEN ITZULKETA	Istripu baten kasuan	6.000 € arte

Aseguratua eskiatzen ari dela, erori egiten da. Hasiera batean, isuri bat diagnostikatzen zaio belaeuneko artikulazioan, baina min-sintomak desagertzen ez direnez, erresonantzia bat egin eta meniskoaren haustura traumatiko bat detektatzen zaio. Beraz, artroskopia bat egin eta lesionatutako meniskoaren parte bat kentzen diote. Operazio-osteko errehabilitazioa eta ondorengo errehabilitazioa arrakastatsuak dira, eta normaltasun osoz hasten da berriz lanean (iturgina), baita kirola (eskia) egiten ere.

Kontratututako bitzitza-aseguruko polizak estalitako istripu horren ondorioz prestazio hauek emango lirateke:

- ✓ Diagnostiko-probak: erresonantzia magnetikoa → Kostua = 300 euro
- ✓ Ebakuntza kirurgikoa: artroskopia → Kostua = 3.500 euro
- ✓ Errehabilitazioa: 20 saio 30 eurotan + 3 kontsulta mediko 60 eurotan → Kostua = 780 euro
- ✓ Ospitaleratzearen iraupena: 1 egun
- ✓ Laneko bajaren iraupena: 100 egun
- ✓ Ondorioa: % 2 (ez dago gure baremoan espezifikoki jasota, beraz 1971/1999 Errege Dekretuko baremo ofizialera joko dugu).

BALIAEZINTASUN IRAUNKOR PARTZIALA (BAREMOAREN ARABERA) ETA ABSOLUTU	Istripu baten kasuan	100.000 € -ren % 2 = 2.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	0 €
LANEKO BAJA	Istripu baten kasuan	(100-7) egun x 30 € = 2.790 €
OSPITALERATZEAGATIKO KALTE-ORDAINA	Istripu baten kasuan	0 €
OSASUN-GASTUEN ITZULKETA	Istripu baten kasuan	4.580 €
<b>PRESTAZIOAREN ZENBATEKOA GUZTIRA</b>		<b>9.370 €</b>

Prestazio hori kobratzen bada ere, polizak eta horren bermeez indarrean jarraituko dute, eta ez da aldaketarik egongo ez aseguruaren priman ez aseguru-baldintzetan ere.

## 2.adibidea

### Hartzaileak poliza bat kontratatzen du ondorengo berme eta kapital aseguratuekin:

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	10.000 €
	Istripu baten kasuan	20.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	30.000 €
BALIAEZINTASUN HANDIA	Gaixotasun baten kasuan	100.000 €
	Istripu baten kasuan	200.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	300.000 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUA Istripuagatiko eta Zirkulazio-istripugatiko baliaezintasun iraunkor partziala (baremoaren arabera) barne hartzen da	Gaixotasun baten kasuan	25.000 €
	Istripu baten kasuan	50.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	100.000 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR OSOA (PROFESIONALA)	Gaixotasun baten kasuan	25.000 €
	Istripu baten kasuan	50.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	75.000 €
LANEKO BAJA	Istripu baten kasuan	30 € 7 eguneko frankizia
OSPITALERATZEAGATIKO KALTE-ORDAINA	Istripu baten kasuan	30 €
OSASUN-GASTUEN ITZULKETA	Istripu baten kasuan	6.000 € arte

Igeltsero autonomoa den Aseguratuak laneko istripu bat dauka. Rotaflexa erabiltzen ari dela printza bat sartzen zaio eskuineko begian eta kontusio garrantzitsu bat sortzen dio. Denborarekin katarata traumatiko bat garatzen du, eta ikusmen-galera nabarmena denez, ebakuntza egin behar zaio, hori atera eta begi-barneko lente bat jartzeko. Ebakuntza eta ondorengo errekuperazioa guztiz arrakastatsuak dira, eta begiaren ikusmena osorik berreskuratzen du, betaurrekorik behar izan gabe.

Kontratututako bizitza-aseguruko polizak estalitako istripu horren ondorioz prestazio hauek emango lirateke:

- √ Ebakuntza kirurgikoa → Kostua = 1.700 euro
- √ Kontsulta oftalmologikoak: 3 saio 120 eurotan → Kostua = 360 euro
- √ Ospitaleratzearen iraupena: 1 edo 2 egun
- √ Laneko bajaren iraupena: 30 egun
- √ Ondorioa: % 5 (gure baremoan espezifikoki jasoa).

BALIAEZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUA	En caso de Enfermedad y Accidente	0 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR PARTZIALA (BAREMOAREN ARABERA)	En caso de Accidente	50.000 €-ren % 5 = 2.500 €
	En caso de Accidente de Circulación	0 €
LANEKO BAJA	En caso de Accidente	(30-7) egun x 30 € = 690 €
OSPITALERATZEAGATIKO KALTE-ORDAINA	En caso de Accidente	0 €
OSASUN-GASTUEN ITZULKETA	En caso de Accidente	2.060 €
<b>PRESTAZIOAREN ZENBATEKOA GUZTIRA</b>		<b>5.250 €</b>

Prestazio hori kobratzen bada ere, polizak eta horren bermeez indarrean jarraituko dute, eta ez da aldaketarik egongo ez aseguruaren primaz ez aseguru-baldintzetan ere.

## 3.adibidea

Hartzaileak poliza bat kontratatzen du ondorengo berme eta kapital aseguratuekin:

HERIOTZA	Gaixotasun baten kasuan	10.000 €
	Istripu baten kasuan	20.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	30.000 €
BALIAEZINTASUN HANDIA	Gaixotasun baten kasuan	100.000 €
	Istripu baten kasuan	200.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	300.000 €
BALIAEZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUA Istripuagatiko eta Zirkulazio istripugatiko baliazintasun iraunkor partziala (baremoaren arabera) barne hartzen da	Gaixotasun baten kasuan	50.000 €
	Istripu baten kasuan	100.000 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	150.000 €
LANEKO BAJA	Istripu baten kasuan	30 € 7 eguneko frankizia
OSPITALERATZEAGATIKO KALTE-ORDAINA	Istripu baten kasuan	30 €
OSASUN-GASTUEN ITZULKETA	Istripu baten kasuan	6.000 € arte

**Garraiolaria autonomoa den Aseguratuak zirkulazio-istripu bat izaten du asteburuan. Aurrez aurreko talka bat izan da, eta Aseguratuak aldaka hautsi eta lokatu du, artikulazioak kalte garrantzitsuak izan ditu, eta nerbio ziatikoaren paralisia ere gertatu da. Ebakuntza egin behar diote aldaka-protesi bat jartzeko. Laneko baja luze baten ondoren, oinez has daiteke berriz, baina ahalegin handirik edota zamalanik egin gabe. Bere ohiko garraiolaria-lana garatzea eragozten dion kalte funtzional iraunkorra eta atzeraezina ikusita, Gizarte Segurantzak lan- istripuagatiko ezintasun iraunkor osoa (profesionala) ematen dio.**

Kontratututako bitzitza-aseguruko polizak estalitako istripu horren ondorioz prestazio hauek emango lirateke:

- ✓ Diagnostiko-probak: erresonantzia magnetikoa Kostua = 300 euro
- ✓ Ebakuntza kirurgikoa Kostua = 6.000 euro
- ✓ Aldaka-protesia Kostua = 3.000 euro (muga: 120.000 €-ren % 5 = 6.000 €)
- ✓ Errehabilitazioa: 20 saio hilean 12 hilabetetan (240 saio) 30 eurotan + 16 kontsulta mediko (traumatologoa, kirurgialaria, errehabilitatzailea) 80 eurotan Kostua = 8.480 euro
- ✓ Ospitaleratzearen iraupena: 25 egun
- ✓ Laneko bajaren iraupena: 12 hilabete (365 egun)
- ✓ Ondorioa: % 20 aldakako kalteagatik + % 15 nerbio ziatikoaren paralisagatik (gure baremoan espezifikoki jasoa).

BALIAEZINTASUN IRAUNKOR PARTZIALA (BAREMOAREN ARABERA) ETA ABSOLUTUA	Istripu baten kasuan	0 €
	Zirkulazio-istripu baten kasuan	150.000 €-ren % 35 = 52.000 €
LANEKO BAJA	Istripu baten kasuan	(365-7) egun x 30 € = 10.740 €
OSPITALERATZEAGATIKO KALTE-ORDAINA	Istripu baten kasuan	25 egun x 30 € = 750 €
OSASUN-GASTUEN ITZULKETA	Istripu baten kasuan	6.000 € (kontratututako muga)
<b>PRESTAZIOAREN ZENBATEKOA GUZTIRA</b>		<b>69.990 €</b>

Prestazio hori kobratzen bada ere, polizak eta horren bermeez indarrean jarraituko dute, eta ez da aldaketarik egongo ez aseguruaren priman ez aseguru-baldintzetan ere.





# NOLA JOKATU ASEGRATUA HILTZEN BADA

Aseguratua hiltzen bada, Onuradunak edo Onuradunek horren berri eman beharko diote Aseguru Etxeari, ondorengo dokumentuak helaraziz:

- **Aseguratuaren NANaren edo jaiotza-ziurtagiriaren fotokopia.**
- **Aseguratuaren heriotza-ziurtagiria.**
- Aseguratua bere azken gaixotasunean artatu duen **medikuaren txostena**, non **heriotzaren kausak eta egoerak** eta Aseguratuaren **osasun-aurrekariak**, dagokion debut-**datarekin**, jasotzen diren.
- **Aseguratua ISTRIPU baten ondorioz hilko balitz**, txosten medikoaren ordez aski izan daiteke istripuaren kausak eta egoerak azaltzen **dituen atestaturia edo eginbide judizialak** aurkeztea.

Eransgarri gisa, eta gertakariaren izaera eta ezaugarrien arabera, ondorengoak ere eskatu ahal izango dira:

- **Autopsia-txostena**,
- **INTren** (Toxikologiako Institutu Nazionalaren) **txosten toxikologikoa**.
- **Onuradunaren edo Onuradunen nortasuna frogatzeko dokumentuak:**
  - **Onuradun bakoitzaren NANaren edo ordezkoko dokumentu baten** (IFZ, pasaporte, bizileku-baimena, etab.en) **fotokopia**.
  - Izendapenak "ezkontidea", "ondorengo ahaideak", "anai-arrebak" eta/edo "aurreko ahaideak" barne hartzen baditu, dagokion **familia-liburuaren fotokopia** ere aurkeztu beharko da, eransgarri gisa, ahaidetasuna frogatzeko.
  - Izendapena "legezko oinordekoak" izango balitz, **Azken Borondateen Erregistroaren Egiaztagiriaren** eta **Testamentuaren** fotokopiak aurkeztu beharko dira eransgarri gisa
- Hartzailea eta Onuraduna pertsona bera ez direnean, **Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren ordainketa-gutuna, edo horren salbuespena**, dagokion ogasun-ordezkaritzak behar bezala beteta.

# NOLA JOKATU ASEGURATUARI GAIXOTASUN LARRI BAT DIAGNOSTIKATZEN BAZAIO

Aseguratuari bermeak estalitako gaixotasun larrietako baten bat diagnostikatzen bazaio, horren berri eman beharko dio Aseguru Etxeari, ondorengo dokumentuak aurkeztuz:

- **Aseguratuaren NANaren edo jaiotza-ziurtagiriaren fotokopia.**
- Gaixotasun larria diagnostikatzen duen **mediku espezialistaren txostena**, eta Aseguratuaren **osasun-aurrekariak**, dagokion debut-**datarekin**.
- Kasu zehatz bakoitzean beharrezkoa den **informazio klinikoa, erradiologikoa, histologikoa eta laborategikoa**.
- Aseguratuak bere baimena emango die **Erakunde Aseguratzailleko zerbitzu medikoei** beharrezkotzat jotzen diren **proba eta azterketa medikoak egiteko**.
- Aseguratuaren gaixotasun larriaren arrazoia **ISTRIPU** bat izango balitz, istripu hori sortu duten kausen eta egoeren berri ematen duen **atestatua** edo **eginbide judizialak** ere eskatu ahal izango dira eransgarri gisa.

# NOLA JOKATU ASEGURATUAK BALIAEZINTASUNA JASATEN BADU: HANDIA, IRAUNKOR ABSOLUTUA, PARTZIALA (BAREMOAREN ARABERA) EDO OSOA (PROFESIONALA)

Aseguratuak baliaezintasun handia, iraunkor absolutua, osoa edo partziala (baremoaren arabera) jasango balu, Aseguru Etxeari jakinarazi beharko dio, ondorengo dokumentuak aurkeztuz:

- Aseguratuaren NANaren edo jaiotza-ziurtagiriaren fotokopia.
- **Gizarte Segurantzako organo eskudunek egindako ebazpena**, non Aseguratuari emandako **baliaezintasun-maila**, **kausak eta egoerak** zein haren **osasun-aurrekariak**, **horien data eta eboluzioarekin**, zehazten diren.
- Gizarte Segurantzako ebazpenik egon ezean, Aseguratuaren baliaezintasun iraunkorra justifikatzen duten **kausak eta egoerak** zehazten dituen **txosten medikoa**, baita **osasun-aurrekariak** ere, dagokien debut-**datarekin** eta eboluzioarekin.
- Kasu zehatz bakoitzean beharrezkoa den **informazio klinikoa**, **erradiologikoa**, **histologikoa eta laborategikoa**.
- Aseguratuak bere baimena emango die **Erakunde Aseguratzailleko zerbitzu medikoei** beharrezkotzat jotzen diren **proba eta azterketa medikoak egiteko**.
- Aseguratuaren baliaezintasunaren arrazoia **ISTRIPU** bat izango balitz, istripu hori sortu duten kausen eta egoeren berri ematen duen **atestatua** edo **eginbide judizialak** ere eskatu ahal izango dira eransgarri gisa.

# NOLA JOKATU ASEGURATUAK ISTRIPU BATENGATIK LANEKO BAJA HARTZEN BADU

Polizan estalitako istripu baten ondorioz Aseguratuaren osasun-egoera aldatu eta aldi baterako bere ohiko lanbide edo lan-jarduera lanaldi osoan garatzeko ezindua egongo balitz, Aseguru Etxeari jakinarazi beharko dio, ondorengo dokumentuak aurkeztuz:

- **Aseguratuaren NANaren edo jaiotza-ziurtagiriaren fotokopia.**
- **Ezbeharraren deklarazioa edo partea.** Inprimaki hori Aseguru Etxeak emango du, eskatuz gero, eta atal guztiak bete beharko dira.
- Bere ohiko lanbidea edo lan-jarduera erabat garatzeko aldi baterako ezintasuna klinikoki justifikatzen duten **kausak eta egoerak** zehazten dituen **txosten medikoa**.
- Kasu zehatz bakoitzean beharrezkoak diren **osasun-aurrekariak eta informazio klinikoa, erradiologikoa, histologikoa eta laborategikoa**.
- Aseguratuak bere baimena emango die **Erakunde Aseguratzailerako zerbitzu medikoei** beharrezkotzat jotzen diren **proba eta azterketa medikoak egiteko**.
- Istripuaren izaeraren eta ezaugarrien arabera, istripu hori sortu duten kausen eta egoeren berri ematen duen **atestatua edo eginbide judizialak** ere eskatu ahal izango dira eransgarri gisa.

# BATENGATIK OSPITALERATZEAGATIKO KALTE-ORDAINA JASO BEHAR BADU

Polizan estalitako istripu baten ondorioz Aseguratuaren osasun-egoera aldatu eta ospitaleratu beharko balitz, Aseguru Etxeari jakinarazi beharko dio, ondorengo dokumentuak aurkeztuz:

- **Aseguratuaren NANaren edo jaiotza-ziurtagiriaren fotokopia.**
- **Ezbeharraren deklarazioa edo partea.** Inprimaki hori Aseguru Etxeak emango du, eskatuz gero, eta atal guztiak bete beharko dira.
- Ospitaleratzea, eta baita egonaldiaren iraupena ere, justifikatzen duten **kausak eta egoerak** zehazten dituen **osasun-zentro, klinika edo ospitalearen ospitale-altaren txostena**, bertan **sartzeko eta ateratzeko orduak** adierazten dituen, kalte-ordainaren zenbatekoa zehazteko.
- Kasu zehatz bakoitzean beharrezkoak diren **osasun-aurrekariak eta informazio klinikoa, erradiologikoa, histologikoa eta laborategikoa.**
- Aseguratuak bere baimena emango die **Erakunde Aseguratzailerako zerbitzu medikoei** beharrezkotzat jotzen diren **proba eta azterketa medikoak egiteko.**
- Istripuaren izaeraren eta ezaugarrien arabera, istripu hori sortu duten kausen eta egoeren berri ematen duen **atestatua edo eginbide judzialak** ere eskatu ahal izango dira eransgarri gisa.

# NOLA JOKATU ASEGURATUAK ISTRIPU BATENGATIKO OSASUN-GASTUAK ITZULTZEA ESKATU BEHAR BADU

Polizan estalitako istripu baten ondorioz Aseguratuaren osasun-egoera aldatu eta osasun-laguntza beharko balu, Aseguru Etxeari jakinarazi beharko dio, ondorengo dokumentuak aurkeztuz:

- **Aseguratuaren NANaren edo jaiotza-ziurtagiriaren fotokopia.**
- **Ezbeharraren deklarazioa edo partea.** Inprimaki hori Erakunde Aseguratzailleak emango du, eskatuz gero, eta atal guztiak bete beharko dira.
- Istripuaren ondorioz osasun-laguntza jaso behar duela klinikoki justifikatzen duten **kausak eta egoerak** zehazten dituen **txosten medikoa.**
- Jasotako osasun-laguntza justifikatzen duten **faktura medikoak.**
- Kasu zehatz bakoitzean beharrezkoak diren **osasun-aurrekariak eta informazio klinikoa, erradiologikoa, histologikoa eta laborategikoa.**
- Aseguratuak bere baimena emango die **Erakunde Aseguratzailleko zerbitzu medikoei** beharrezkotzat jotzen diren **proba eta azterketa medikoak egiteko.**
- Istripuaren izaeraren eta ezaugarrien arabera, istripu hori sortu duten kausen eta egoeren berri ematen duen **atestatua edo eginbide judizialak** ere eskatu ahal izango dira eransgarri gisa.

# POLIZAREN OINARRIZKO ARAUDIA

## Polizaren oinarriak

Poliza kontratatu aurretik, Erakunde Aseguratzailleak dagozkion galde-sortak betetzea eskatuko dio aseguru egin nahi duen pertsonari, arriskua behar bezala baloratu eta aseguruaren baldintzak zehaztu ahal izateko.

Galde-sorta horien helburua da aseguru egin nahi duen pertsonaren datu pertsonalez gain haren egoera fisikoa eta osasun-egoera, bizi-ohiturak, jarduera profesionala eta, kasua denean, aisialdian egiten dituen kirolak eta/edo jarduerak ere ezagutzea.

Deklarazio hauek telefonozko inkesta edo teleaukeraketa-prozesu bidez ere lortu ahal izango dira.

Zenbait kasutan, aseguru egin nahi duen pertsonaren adinaren eta eskatutako kapital aseguruaren arabera, Erakunde Aseguratzailleak proba mediko jakin batzuk egitea eskatu ahal izango du poliza kontratatu aurretik. Proba horiek erakundearen kargura izango dira edonola ere, eta emaitzak azterketa jaso duen pertsonari jakinaraziko zaizkio.

**Hori dela eta, bitziza-aseguruko poliza hau eta horren baldintzak zehazteko, Hartzaileak eta Aseguratuak aseguru-eskaeran egindako deklarazioak hartuko dira kontuan, bai eta dagokionean eskatutako osasun-deklarazioetan eta azterketa medikoetan egindakoak ere, eta hori guztia kontratuaren parte izango da.**

**Aseguru Etxea deklarazio horietan oinarritu da arriskua onartzeko eta baloratzeko, eta, beraz, baita dagokion prima kalkulatzeko ere.**

Aseguru egin ahal izateko eskakizunak eta baldintzak Aseguru Etxearen oinarri teknikoetako zehaztapenen arabera finkatuko dira, eta aurreko paragrafoan aipatutako Hartzailearen eta Aseguratuaren deklarazioen bidez egiaztatuko da horiek betetzen direla.

**Hartzaileak eta/edo Aseguratuak deklarazioetan zerbait isilduko balu, zehatz azalduko ez balu edo gezurra esango balu berak ezagutzen dituen eta arriskuaren onarpenean eta balorazioan eragina izan dezaketen zirkunstantzietan buruz, ondorengo erregela hauek aplikatuko dira:**

- Legeak ezarritakoarekin bat, Aseguru Etxeak kontratua desegin ahal izango du Hartzaileari deklarazio bat zuzenduz, eta ezkutatzea edo zehaztasun-gabezia jakin eta hilabeteko epea izango du horretarako. Aseguru Etxearentzat izango dira deklarazioa egiten den unean hasita dagoen aseguru-aldiari dagozkion primak.
- Ezbeharrak Aseguru Etxeak deklarazio hori egin baino lehenago gertatzen bada, kalte-ordaina proportzionalki murriztuko da, arriskuaren benetako tamaina ezagutuko balitz aplikatuko litzatekeen primaren eta hitzartutako primaren arteko aldearen proportzioan.
- Hartzailearen eta/edo Aseguratuaren aldetik dolo edo erru larririk izan bada, Aseguru Etxeak poliza honen baliotasuna aurkaratu ahal izango du, eta aske geratuko da kalte-ordaina ematek.



## Poliza kontratatzeko adin-mugak

Poliza kontratatu ahal izateko, Aseguratuak 18 eta 60 urte bitartean izan beharko ditu, bi muga horiek barne.

## Aseguruaren hasiera

Aseguruaren bermeak berehala sartuko dira indarrean polizaren Baldintza Partikularretan adierazitako datan, hau da, gabealdirik gabe baldin eta Aseguru Hartzaileak lehen prima-ordainagiria ordaindu badu.

Salbuespen gisa, **gaixotasun larrien bermerako eta minbiziari dagokionez, 90 eguneko** epea ezartzen da.

## Aseguruaren iraupena

Polizaren iraupena Baldintza Partikularretan ezarri den epea izango da.

Kontratutako poliza urtez urte berritzen bada, iraupena **urtebetekoa** izango da. Alabaina, Aseguru Hartzaileak urtaldia amaitu baino gutxienez **hilabete bat lehenago jakinarazpen idatzi** baten bidez Aseguru Etxeari kontrakorik adierazi ezean, **poliza automatikoki berrituko da urtero-urtero** aseguruaren efektu-dataren ondorengo urtemuga bakoitzean, berritze-urtaldi bakoitzeko prima ordainduz.

## Aseguruaren iraupenaren mugak

Heriotzako berme nagusiari eta Baliaezintasun Handiaren aukerako bermeari dagokionez, kapital osagarri bat kontratu bada, polizaren iraupenaren muga Aseguratuak 75 urte betetzen dituen aseguru-urtaldia izango da, eta horren amaieran kontratua automatikoki iraungiko da.

Nolanahi ere, kontratatzea aukerakoa den berme osagarri guztiak automatikoki amaituko dira Aseguratuak 67 urte betetzen diuen aseguru-urtaldia amaitzean.

## Kontratua desegiteko baldintzak

→ **Aseguru Hartzaileak** kontratua alde bakarrez suntsiarazteko ahalmena izango du, **Aseguratzailerak** poliza edo behin-behineko estaldura-dokumentua eman ondorengo 30 egunetan.

Kontratua alde bakarrez suntsiarazteko ahalmen hori aipatutako epean idazki bat bidaliz gauzatu beharko du Aseguru Hartzaileak, eta bidalketa egiten den egunetik sortuko ditu ondorioak, une horretan etenda geratuko baita Aseguratzaileraren aldetiko arrisku-estaldura.

Aseguru Hartzaileak ordaindutako primaren zenbatekoa berreskuratzeko eskubidea izango du, kontratua indarrean egon den denborari dagokion zatia eta legez jasanaraz daitezkeen errekarquen eta zergen zatia izan ezik.

→ Era berean, **Aseguru Hartzaileak** aseguru-urtaldi bakoitzaren amaieran aseguru-kontratua desegitea eskatu ahal izango du. Jakinarazpena Aseguru Hartzaileak egin beharko du, idatziz eta behar bezala sinatuta, gutxienez, hasita dagoen aseguru-urtaldia amaitu baino hilabete bat lehenago.

→ **Aseguru Etxeak** arrazoi hauengatik hutsal dezake aseguru-kontratua:

- Aseguruaren lehenengo urtean, Aseguru Hartzaileak erreserba edo zehaztugabetasunen bat egin baldin badu aseguraturako arriskuaren deklarazioetan. Horretarako, Aseguratzailerak hilabeteko epea izango du hutsaltzea jakinarazteko, hutsegiteaz ohartzen den unetik kontatzen hasita. Urtebeteko epea ez da aintzakotzat hartuko Aseguru Hartzaileak doluz edota erru larriz jokatu badu.
- Aseguratuak deklaraturako adina ez bada zuzena, eta benetako adinak gainditu egiten badu Baldintza Orokor hauetan zehaztutako kontratazio-muga.
- Lehenengo prima ez bada ordaintzen eta, bigarren prima eta ondorengoentzat, ordaintzen ez direnean eta poliza iraungitzen denean epea amaitu delako.

**Aseguru Etxeak ez du inola ere poliza baliogabetuko Aseguruaren osasun-egoera, kontratazioaren unean polizaren Baldintza Partikularretan zehaztutako Osasun Deklarazioan jasotako hasierako osasun-egoerarekiko, okerrera joan bada edo larriagotu egin bada, hori baita aseguru honen objektua.**

**Halaber, Aseguru Hartzaileak edo Aseguratuak ez dauka Aseguruaren osasun-egoeraren inguruabarren aldaketaren berri eman beharrik, ezein kasutan ez baitira arriskuaren areagotzetzat jotzen.**

## Disputaezintasuna

Hartzaileak Aseguratzailari eska diezaioke, poliza entregatzen den unetik hasi eta hilabeteko epean, polizaren eta aseguru-eskaeraren edo hitzartutako klausulen arteko desadostasunak konpon ditzala. Epe hori amaitu eta erreklamaziorik egin ez bada, polizan ezarritakoari jarraituko zaio.

Poliza hori ezingo da aurkaratu, formalizatu denetik urtebete igaro ondoren; une horretatik aurrera disputaezina bilakatuko da, Baldintza Partikularretan epe laburragoa zehazten ez bada.

Hala ere, azterketa medikoa aseguruari atxikitzeko ezinbesteko baldintza denean, poliza efektu-datatik aurrera izango da disputaezina.

## Kontratuaren mugak

Aseguru-entitateak uko egiten dio aldebakarreko eskubide hauek baliatzeari: kontratua ezeztatzea, kontratuaren arabera ordaindutako primak ezestea eta osasun-egoera okerrera joan bada edo larriagotu egin bada, kontratuaren arabera ordaindu beharreko primaren tarifak edo prestazioak aldatzea. Soilik mantenduko du zorro-mailan aldatzeko eskubidea, betiere aldaketa hori ezbehar-tasaren eta zorro horren guztizko gastuen desbideratze material batek eragindakoa bada, eta kasu horretan aseguru-hartzaileak aurka egiteko eskubidea izango du ez badago egindako aldatetarekin ados.

Birtarifikazio kolektiborako eskubide hori baliatzeko ondorioetarako, **Baldintza Partikular hauetako Informazio-ohar**ean sartutako **Kontratuaren mugak** atalean zehazten dira aipatutako tarifa-berrikuspenaren eskubidearen irismena, definizioa eta mugak.

## Akatsa Aseguratuaren adinean

Aseguru-poliza honen ondorioetarako, polizaren efektu-datatik gertuen dagoen urtebetetzeari dagokion adina –bete aurretik nahiz bete ondoren– hartzen da kontuan.

**Aseguru Etxeak kontratua aurkaratu ahal izango du hura indarrean sartzeko unean Aseguratuaren benetako adinak Baldintza Orokorretan ezarritako onarpen-muga gaindituko balu. Kasu horretan, Aseguratzailak aurkaratzearen unera arte jasotako primak itzuliko ditu, legez jasanarazitako zerga eta errekar gurik gabe.**

**Aseguratuak, poliza indarrean sartzean, deklaraturakoa baino adin handiagoa bazuen, Aseguratzailak Aseguratu horren benetako adinari dagokion prima-tipoa aplikatuz ordaindutako primen arabera egokituko litzaizkiokeen kapital aseguratuak baino ez lituzke ordaindu beharko.**

Aseguratuaren aldeko adin-desberdintasuna gertatuko balitz, ordea, Aseguratzailak kobratutako gehiegizko primak itzuli beharko lituzke, **interesik gabe**.

## Aseguratutako kapitalen eta bermeen aldaketa

→ Hartzaileak Baldintza Partikularretan jasotako berme eta kapital aseguratutako aldatu nahiko balitu, horiek **kanpoan utziz edo murriztuz**, Aseguru Etxeari jakinarazi beharko dio **polizaren urteko muga-eguna baino hilabete bat lehenago** gutxienez.

→ Hartzaileak Baldintza Partikularretan jasotako berme eta kapital aseguratutako aldatu nahiko balitu, horiek **barne hartuz edo handituz**, Aseguru Etxeari jakinarazi beharko dio, eta horrek, Hartzaileak eta Aseguratutako handitze-eskaera horretan egindako deklarazioetan oinarrituta, proposatutako arrisku-areagotzea baloratuko du, hura **onartu edo ukatzeko**, eta kasua denean dagozkion **aseguru-baldintzak eta prima** zehazteko, Baldintza Orokor hauetan **Polizaren oinarriak** atalean ezarritakoarekin bat.

## Onuradunak izendatzea eta aldatzea

Onuradunak izendatzea aseguruaren Hartzaileak soilik duen eskubide bat da eta polizaren Baldintza Partikularren bidez, Aseguratzailari geroago igorritako idatzizko deklarazio baten bidez edota testamentuaren bidez gauzatu ahal izango da.

Kontratuaren indarraldian, Hartzaileak Onuraduna izendatu edo aldatu ahal izango du, ahalmen horri berariaz eta idatziz uko egin ez badio.

Onuradun bat ezeztatzeko edo berri bat izendatzeko, izendapena egiteko prozedura bera erabili beharko da.

Heriotzaren unean Onuradun zehatzik izendatuta ez balego, ez eta hori zehazteko araurik ere, kapital aseguratua Hartzailearen ondarearen parte bilakatuko da.

## Polizaren lagapena edo pignorazioa

Hartzaileak edozein unetan laga edo pignoratu ahal izango du poliza, baldin eta ez bada modu errebokeazinean Onuradun izendatua izan.

Poliza lagatzean edo pignoratzean Onuraduna ezeztatzen da.

Hartzaileak egindako lagapena edo pignorazioa jakinarazi beharko dio Aseguratzailari.

## Poliza galtzea edo suntsitzea

Poliza galduz gero, Hartzaileak, Aseguratutako edo Onuradunak hala eskatuta, polizaren kopia edo bikoiztu bat egin beharko du Aseguratzailari, eta horrek jatorrizkoaren eraginkortasun bera izango du. Eskaera idazki bidez egingo da eta bertan honakoa egin beharko da: kasuaren nondik norakoak azaldu; polizaren bidez eskubideren baten titular direnei horren berri eman izanaren frogak eman; eta eskatzaileak hitzeman beharko du jatorrizkoa, agertuz gero, itzuliko duela eta ordainduko dituela hirugarren baten erreklamazioak Aseguratzailari ekar liezazkiokeen kalteak.

# Aseguruaren primak

## Ordaintzeko era eta zenbatekoa

Poliza honi dagokion prima, legez jasanaraztekoak diren zerga eta errekaruekin batera, aldez aurretik ordaindu beharko da efektu-datan eta ondorengo urte-mugetan, polizaren Baldintza Partikularretan ezarritakoarekin bat.

Urteko prima berdin mantentzen daiteke aseguruak irauten duen denbora osoan, edota, Baldintza Partikularretan adierazita egonez gero, automatikoki birbaloratuz joango da urtaldi bakoitzaren amaieran Baldintza Partikularretan zehaztutako zenbatekoan eta eran.

Kontratututako poliza urtez urte berritzen bada, kapital aseguratuko mila euro bakoitzeko urteko primen tarifa polizaren Baldintza Partikularretan azaltzen dena izango da.

Tarifa horiek Aseguratuak duen adinaren arabera kalkulatu dira, Aseguratuak duen prima kalkulatzeko ezartzen dituen oinarri teknikoen arabera.

Oinarri tekniko horiek eta aseguruaren prima kalkulatzeko metodoak Hartzailearen eta interesatua dagoen edonoren esku jarriko dira.

Prima urteko berritze bakoitzean birkalkulatuko da, aseguratua betetako adina eta berritze-datan estaltzea dagokion kapital aseguratua kontuan hartuta.

## Urteko primaren zatikatzea

Polizaren Baldintza Orokorren barruan aseguruaren Hartzaileak urteko primaren ordainketa zatika egitea hitzartu ahal izango du, kasu bakoitzean dagokion zatikatzeagatik errekaruaren truke. Errekargu hori ere polizaren Baldintza Partikularretan jasota egongo da.

Aseguru Etxeak Hartzailearen erosotasunerako eskaintzen dituen ordaintzeko erak hauek dira:

hilean behin, bi hilean behin, hiru hilean behin, lau hilean behin eta sei hilean behin.

Urteko poliza berritzean, hasieran hautatutako prima-ordainketako era aldatu ahal izango du Hartzaileak polizaren Baldintza Partikularren gehigarri baten bidez.

## Graziatzeko epea

Bigarren primatik aurrera, primak ordaintzeko, muga-egunaren ondorengo 30 eguneko graziatzeko epe bat emango da, eta epe horretan ere polizak bere indarra mantenduko du.

Epe hori agortu ondoren, muga-egunetik hilabete batera, Aseguratzaillearen estaldura etenda geratuko da, baldin eta polizari balio bermaturik aitortzen ez bazaio.

Prima mugaeguneratu ondorengo sei hilabeteetan Aseguratzailleak ez badu ordainketa erreklamatzeko, poliza iraungi egingo da.

Poliza etenda dagoenean, Aseguratzailleak uneko epealdiari dagokion primaren ordainketa baino ezingo du eskatu. Poliza ez balitz suntsiaraziko edo iraungiko, aurretik azaldutakoaren arabera, aseguruaren Hartzaileak prima ordaintzen duen egunetik hogeita lau ordura estaldura indarrean sartuko da berriro ere.

## Primen ordainketaren iraupena

Kontrakoa adostu ezean, poliza indarrean dagoen bitartean primak ordaintzeko muga-egun bakoitzean ordaindu beharko dira primak, Baldintza Berezieta eta Partikularretan ezarritakoarekin bat.

## Primak ordaintzeko lekua

Aseguruaren primak polizan ezarritako muga-egunetan ordaindu beharko dira, aseguruaren Hartzailearen helbidean edota polizaren Baldintza Partikularretan hitzartutako helbidean.

Prima ordaindutakoan, ordainagiri bat emango da, ondorengoak zehaztuta: primaren epealdia eta zenbatekoa, eta legez jasanaraztekoak diren zerga eta errekarquak.

Prima-ordainketa bankuz helbideratzea adosten bada, arau hauek aplikatuko dira:

- Hartzaileak banketxe, aurrezki-kutxa edo finantza-erakundeari dagokion agindua emanez zuzendutako gutuna emango dio Aseguratzailleari.
- Prima bere muga-egunean ordaindutzat hartuko da, salbu hilabeteko graziazko epean kobratzen saiatzean ordaindu behar duenaren kontuan nahiko diru ez badago. Kasu horretan, Aseguratzailleak Hartzaileari jakinaraziko dio ordainagiria Aseguratzaillearen helbidean duela, eta prima helbide horretan ordaindu beharko du.
- Aseguratzailleak graziazko epea pasatzen utziko balu ordainagiria kobratzera aurkeztu gabe, edota aurkezterakoan kontuan nahiko dirurik ez balego, Aseguratzailleak hori jakinaraziko dio Hartzaileari, gutun ziurtatu edo zalantzarik gabeko batez, hilabeteko beste epe bat emanez Aseguratzailleari prima ordainduko dion era jakinarazteko. Epe hori kontatzen hasiko da aipatutako gutuna edo jakinarazpena Aseguratzailleari komunikatutako azken helbidean jasotzen denean.

## Prestazioen likidazioa eta ordainketa

### Hartzailearen, Aseguratuaren edo Onuradunen betebeharrak

Poliza honen kargurako prestazioa edo kapital aseguratua ordaintzeko, aseguruaren Hartzaileak, Aseguratuak edo Onuradunek betebeharrak izango dituzte:

- Beren esku dauden baliabideak erabiltzea, kasua denean, istripuaren ondorioak arintzeko. **Betebeharrak hau ez betetzeak eskubidea emango dio Erakunde Aseguratzailari bere prestazioa murrizteko, egokia den proportzioan, kontuan hartuz zenbaterainokoak izan diren hortik sortutako kalteen garrantzia eta Aseguratuaren errua.**
- Ezbeharra ezagutu eta gehienez ere 7 eguneko epean Aseguratzailari horren berri ematea. Betebeharrak hori betetzen ez bada, ezbeharren berri ez ematearen ondoriozko kalte-galerak erreklamatu ahal izango ditu Erakunde Aseguratzailak, istripuaren berri beste bide batetik izan duela frogatzen ez bada behintzat.
- Erakunde Aseguratzailari era guztietako informazioa ematea ezbeharra sortu duen istripu edo gaixotasunaren zirkunstantzia eta ondorio guztiei buruz, hasierako laguntza medikoari buruz eta Aseguratuaren lesioen eboluzioari buruz, bai eta Baldintza Orokor hauetan berme bakoitzerako ezartzen diren frogagiriak eta informazio osagarria ere. **Informazioa emateko betebeharrak hau ez betetzeak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du, doloa edo errua larria izan denean.**
- Kausa justifikaturik egon ezean, Erakunde Aseguratzailak izendatutako medikuen azterketa onartzera, Erakunde Aseguratzailari beharrezkoa dela iruditzen bazaio emandako txostenak osatzeko, eta, Erakunde Aseguratzailaren kontura, azterketa hori egingo den lekura joatera behartuta geratzen dira Aseguratuak.
- Aseguratuak, Onuradunek eta Hartzaileak istripuaren inguruan parte hartu duten profesional guztiei sekretu profesionalaren betebeharrak altxatzeko konpromisoa hartzen dute, Erakunde Aseguratzailak eska dezakeen informazioari buruz.

### Aseguratuaren ordaintzeko epeak

Aseguratzailak kapital aseguratua ordaindu beharko du, ezbeharra izan dela eta polizaren bermeek hori estaltzen dutela zehazteko beharrezko ikerketak eta egiaztapenak amaitu ondoren. Horretarako, txosten eta frogak osagarriak ere bildu ahal izango ditu bere kontura.

Frogagiriak jaso ondoren, kasuaren arabera, eta Onuradunaren identitate pertsonala frogatu ondoren, kapital aseguratua ordaindu edo kontsignatuko dio Aseguratzailak Onuradunari, gehienez **5 egunen** buruan, eta, edozein kasutan, Aseguratzailak ezagutzen dituen zirkunstantzien arabera zor duenaren gutxieneko zenbatekoa, ezbeharren deklarazioa jaso zenetik **40 eguneko** epearen barruan.

## Prestazioa ordaintzeko berandutza

Aseguratzailea berandutzan erori dela ulertuko da, ezbeharrak gertatu eta **3 hilabetera** prestazioa eman ez badu, edo ezbeharraren deklarazioa jaso zenetik berrogei eguneko epean zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu ez badu.

Aseguratzailea berandutzan erortzen bada, Aseguratuarentzat onuragarrien diren kontratu-klausulak baliozkotzat joko diren arren, ondoko arauen arabera emango da kalte eta galeren ordaina:

**I.** Berandutzaren kalte-ordaina ofizioski ezarriko du organo judizialak eta ordaindu beharreko zenbatekoa urteko interesa izango da, honela kalkulaturik: sortzen den garaian indarrean dagoen diruaren legeko interesa % 50ean gehituta; interes horiek egunero sortuko direla kontsideratuko da, erreklamazio judizialik egin beharrik gabe. Hala ere, ezbeharrak gertatu eta bi urte igarota, urteko interesa ezingo da % 20koa baino txikiagoa izan.

**II.** Zor den kalte-ordaina izango da kalkuluaren hasierako oinarria, edo Aseguratzaileak zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa bestela.

**III.** Interes horiek kontatzen hasteko hasiera-muga ezbeharraren data izango da. Hala ere, aseguruaren Hartzailak, Aseguratuak edo Onuradunak ez badute ezbeharraren berri emateko betebeharrak polizan ezarritako epean edo, subsidiarioki, hura ezagutu eta zazpi eguneko epean bete, ezbeharraren berri eman den eguna izango da kontatzen hasteko hasiera-muga.

**IV.** Interesak kontatzeko amaiera-muga izango da: Aseguratzaileak zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu ez den kasuetan, aurreko zenbakiaren arabera kalte-ordainaren zenbateko osoarengatik interesak sorrarazten hasten den eguna, salbu Aseguratzaileak gutxieneko zenbateko hori lehenago ordaintzen badu, kasu horretan ordainketa horren eguna izango baita muga-eguna. Gainerako kasuetan muga-eguna Onuradunari kalte-ordaina ematen dion eguna izango da.

**V.** Aseguratzaileak ez du berandutzako kalte-ordainik ordaindu beharko, kalte-ordaina edo gutxieneko zenbatekoa ez ordaindu izanak arrazoi justifikatua badu edo hari egoztea ezinezkoa bada.

**VI.** Aseguratzailearen berandutzako kalte-ordaina erabakitzean ez da aplikatuko Kode Zibileko 1108. artikuluan xedatutakoa, ez eta Prozedura Zibilaren Legeko 921. artikuluko laugarren paragrafoan ezarritakoa ere, azken agindu horretan epaiaren ezeztatze erabateko edo partzialari buruz dauden aurreikuspenak izan ezik.

**Aseguru Etxeak polizaren arauetan oinarrituz ezbeharrak ez onartzea erabakitzen badu, idatziz jakinarazi beharko dio Hartzailari zazpi eguneko epean, ez onartzea eragin duen kausa jakin duen egunetik hasita. Idatzi horretan ezbeharrak ez onartzeko arrazoiak azaldu beharko dira.**



## Adostasunik ez dagoenean jokatzeko prozedura (arbitrajea)

- Ezbehar-deklarazioa jasotzen denetik **40 egun** igaro baino lehen adostasunik ez badago, Hartzaileak ez duelako onartzen Aseguru Etxeak proposatutako kalte-ordaina, alderdi bakoitzak peritu bat izendatuko du, eta idatziz adierazi beharko da horien onarpena. Alderdietako batek izendapena egin ez badu, behartuta egongo da bere peritua izendatu duen alderdiak eskatzen duen dataren ondorengo **zortzi egunen** barruan izendatzera eta, azken epe horretan izendatzen ez badu, beste alderdiaren perituak ematen duen irizpena onartzen duela ulertuko da eta, ondorioz, hari lotuta geratuko da.
- Perituak ados jarriko balira, akta bateratu batean jasoko da, eta akta horretan adieraziko dira ezbeharraren kausak, kalte-ordaina finkatzeko orduan eragiten duten gainerako zirkunstantziak eta kalte-ordainaren zenbateko likidoaren proposamena.
- Perituen artean adostasunik ez dagoenean, bi alderdiek hirugarren peritu bat izendatuko dute, elkarren artean adostuta, eta adostasunik ez badago, Aseguratuaren helbideko lehen auzialdiko epaileak egingo du izendapena, borondatezko jurisdikzioko egintzan eta Prozedura Zibilaren Legean perituen zozketa egiteko aurreikusitako izapideen bidez. Kasu horretan, perituaren irizpena alderdiek seinalatzen duten epean emango da, edo, horrelakorik ezean, hogeita hamar eguneko epearen barruan, hirugarren adituak bere izendapena onartzen duenetik kontaktzen hasita.
- Perituen irizpena –ahobatezkoa edo gehiago bidezkoa– berehala eta zalantzarik gabe jakinaraziko zaie alderdiei eta loteslea izango da horientzat, salbu alderdietako baten batek judizialki aurkaratzen badu, **30 eguneko** epean Aseguratzaillearen kasuan eta **180 eguneko** epean Aseguratuaren kasuan, biak jakinarazpen-datatik kontaktzen hasita. Epe horien barruan ez bada dagokion akziorik aurkezten, perituen irizpena erasoezin bihurtuko da.
- Perituen irizpena aurkaratzen bada, Aseguratzailleak zor lezakeen kalte-ordainaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu beharko du, eta aurkaratzen ez bada, perituek esandako zenbatekoa ordainduko du bost eguneko epean.
- Aseguru Etxeak erasoezin bilakatutako kalte-ordainaren ordainketa atzeratzeagatik Aseguratu judizialki erreklamatzera behartuta egongo balitz, dagokion kalte-ordaina urteko % 20an gehituko da, kasu honetan balorazioa Aseguratzaillearentzat erasoezin bilakatu zen egunetik sorrarazten hasita, eta, nolnahi ere, Aseguratuari prozesuan sortzen zaizkion gastuen zenbatekoan, kalte-ordain hori ordaintzera espresuki kondenatuko baitu epaiak, aplikatu beharreko prozedura judiziala edozein dela ere.
- Alderdi bakoitzak bere perituaren ordainsariak ordainduko ditu. Hirugarren perituaren gastuak eta peritu-tasazioak sor ditzakeen gainerako gastuak erdibana joango dira Aseguratuaren eta Aseguratzaillearen kontura eta kargura.

Hala ere, alderdietako batek beharrezkoa egin badu peritazioa, ezbeharraren balorazio guztiz desproporzionatua egiteagatik, bera izango litzateke gastu horien erantzule bakarra.

→ **Aseguratua lan-jurisdikzioaren mende jarrita balego, perituen bidezko arbitraje-prozedura hau indargabetutzat joko da, eta Gizarte Segurantzako Ezintasunen Ebaluazio Taldeak emandako ebazpena finkoa denean eta erakunde horrek aurreikus daitekeen bere hobekuntzagatiko berrikuspena ezartzen ez badu egingo du Aseguru Etxeak kalte-ordainen ordainketa, deklaraturako ezintasun profesionala polizaren Baldintza Partikularretan ezarritako mailara iristen bada betiere.**

## Jakinarazpenak

Aseguruaren Hartzaileak, Aseguratuak edo Onuradunak Aseguratzailari egiten dizkioten jakinarazpenak polizan adierazita dagoen Aseguratzailaren helbide sozialean egingo dira.

Aseguruaren Hartzaileak kontratuan bitartekari den edo izan den aseguru-agenteari egindako jakinarazpenek zuzenean Aseguratzailari egindako jakinarazpenen balio bera izango dute.

Aseguratzailak Hartzaileari egin nahi dizkion jakinarazpenak adierazitako azken helbidera bidaliko dizkio (helbide horrek polizan jasoa egon beharko du).

## Kontratuaren preskripzioa eta jurisdikzio aplikagarria

Poliza honetatik sortzen diren ekintzen preskripzio-epaia bost urtekoa izango da, horiek gauzatu daitezkeen egunetik kontatzen hasita.

Aseguru-poliza hau Espainiako jurisdikzioaren mende geratuko da, eta, haren baitan, Aseguratuaren bizilekuari dagokion epailea izango da bertatik datozen ekintzez arduratzeko eskuduna. Aseguratuaren ohiko bizilekua atzerrian balego, Espainiako helbide bat eman beharko du.

## EZOHIKO GERTAKARIEN ONDORIOZKO GALERENGATIK ASEGRATUEN KONPENTSASIO PARTZUERGOAREN KALTE-ORDAINEN KLAUSULA PERTSONA-ASEGURUETAN

Urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Legezko Estatutuaren testu bateginean ezarritakoarekin bat, enpresa-erakunde publiko horren aldeko errekargua nahitaez gaineratu behar duen aseguru-kontratu baten aseguru-hartzaileak edozein erakunde aseguratzailearekin hitzartu ahal izango du ezohiko arriskuen estaldura, baldin eta erakunde aseguratzaile horrek indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen baldintzak betetzen baditu.

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordainduko ditu Espainian edo atzerrian ezohiko gertaerek sortutako ezbeharren ondoriozko kalte-ordainak, pertsonen aseguruaren kasuan, Aseguratuak bere ohiko egoitza Espainian badu eta Aseguru Hartzaileak Partzuergoaren aldeko errekarguak ordainduta baditu, ondorengo egoeretako bat gertatzen denean:

- a) Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estalitako ezohiko arriskua erakunde aseguratzailearekin kontratatutako aseguru-polizaren babesean ez egotea.
- b) Aipatutako aseguru-poliza horrek babestua egonik ere, Erakunde Aseguratzaileak ezin izatea bere betebeharririk bete, judizialki konkurtsoan dagoela deklaratu izan delako, edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak esku hartutako edo bere gain hartutako likidazio-prozedura batean dagoelako.

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak bere jarduna egokituko du aipatutako Legezko Estatutuan, Aseguru Kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legean, Ezohiko Arriskuen Aseguruaren Erregelamenduan –otsailaren 20ko 300/2004 Errege Dekretuak onetsitakoan– eta xedapen osagarrietan zehaztutakora moldatzeko.

## I. LEGE-ARAUEN LABURPENA

### 1. Estaltzen diren ezohiko gertakariak

- a) Naturako fenomeno hauek: lurrikarak eta itsasikarak, ezohiko uholdeak (itsas enbategen sortutakoak barne), sumendien erupzioak, ezohiko ekaitz ziklonikoa (barnean hartuz 120 km/h-tik gorako ezohiko haize-boladak eta tornadoak) eta gorputz sideralak eta aerolitoak erortzea.
- b) Terrorismo, errebolta, sedizio, matxinada eta jende-iskanbilak direla-eta bortxaz eragindakoak.
- c) Indar Armatuek edo Segurtasuneko Indar eta Kidegoek bake-garaian burututako gertaera edo ekintzak.

Fenomeno atmosferikoak eta sismikoak, sumendien erupzioenak eta gorputz sideralak erortzea Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren instantziaz ziurtatuko dira, Estatuko Meteorologia Agentziak (AEMET), Geografia Institutu Nazionalak eta gai horretan eskudunak diren gainerako erakunde publikoek egindako txostenen bidez. Izaera politikoa edo soziala duten gertaeren kasuan, edo Indar Armatuek edo Segurtasuneko Indar eta Gorputzek bake-garaian burututako gertaera edo ekintzen kasuan, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak gertakariei buruzko informazioa bildu ahal izango du jurisdikzio- eta administrazio-organo eskudunetatik.

## 2. Kanpoan utzitako

- a) Aseguru Kontratuaren Legearen arabera kalte-ordainik eragiten ez dutenak.
- b) Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren aldeko errekarua nahitaezkoa ez duen aseguru-kontratu baten bidez aseguraturuta dauden pertsonengan sortutakoak.
- c) Gatazka armatuek eragindakoak, aurrez gerra-deklarazio ofizialik egon ez bada ere.
- d) Energia nuklearretik eratorriak, kalte nuklearrei edo material erradioaktiboengatik sortutakoei buruzko maiatzaren 27ko 12/2011 Legean ezarritakoari kalterik egin gabe.
- e) Aurreko 1. a) atalean adierazitakoez bestelako natura-fenomenoek sorturikoak, eta, bereziki, maila freatikoaren igoerak, malda-higidurek, lurren lerradura edo asentamenduak, haitz-erortzeak eta antzeko fenomenoek sorturikoak; salbuespena izango dira nabarmenki euri-uren eraginez gertaturikoak, baldin eta ur horiek inguruan ezohiko uholde-egoera sortu badute eta uholde horren garaian gertatu badira.
- f) Biltzeko eskubidea arautzen duen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoan xedatutakoari jarraituz egin diren bilera eta manifestazioetako jarduera jendetsuen ondoriozkoak, eta legezko grebetako jardueren ondoriozkoak, jarduera horiek aurreko 1.b) atalean adierazitakoaren arabera ezohiko gertakaritzat hartzen direnean izan ezik.
- g) Aseguratuak fede gaiztoz eragindakoak.
- h) Lehen prima ordaindu aurretik gertatutako ezbeharren ondoriozkoak, edo, Aseguru Kontratuaren Legean ezarritakoarekin bat, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren estaldura etenda dagoenean edo asegurua azkenduta dagoenean primak ordaindu ez direlako gertatutakoen ondoriozkoak.
- i) Haien tamaina eta larritasunagatik Estatuko Gobernuak "katastrofe edo hondamen nazional" gisa kalifikatzen dituenak.

### 3. Estalduraren hedadura

1. Aseguru-polizetan ohiko arriskuen estaldurarako zehazten diren pertsona eta zenbateko aseguratu berberak estaliko ditu ezohiko arriskuen estaldurak.
2. Bizitza-aseguruko polizak direnean, kontratuan aurreikusitakoaren arabera eta aseguru pribatuak arautzen dituen araudiarekin bat hornidura matematikoa sortzen badute, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren estaldurak Aseguratu bakoitzari dagokion arrisku-kapitalari egingo dio erreferentzia, hau da, aseguratutako zenbatekoaren eta poliza jaulki duen Erakunde Aseguratzailleak (aipatutako araudiaren arabera) eratuta eduki behar duen hornidura matematikoaren arteko aldeari. Hornidura matematikoari dagokion zenbatekoa aipatutako Erakunde Aseguratzailleak ordainduko du.

## II. KALTEEN BERRI EMATEA ASEGURUEN KONPENTSAZIO PARTZUERGOARI

1. Estalduraz Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari dagozkion kalte-ordainen eskaera Partzuergo horri zuzendutako komunikazio bidez egingo da. Komunikazio hori aseguru-hartzaileak, aseguratuek edo polizaren onuradunak egingo du, edo aurrekoen kontura eta izenean jarduten duenak, edo erakunde aseguratzailleak edo asegurua kudeatzeko esku hartu duen aseguru-bitartekariak.
2. Honela egin ahal izango da kalteen komunikazioa eta honela eskuratu ahal izango da prozedurari eta ezbeharren izapidetze-egoerari buruzko edozein informazio:
  - Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Telefono bidezko Arreta Zentrora deituz (900 222 665 edo 952 367 042 zenbakira).
  - Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren webgunearen bidez ([www.consorseguros.es](http://www.consorseguros.es)).
3. Kalteen balorazioa: aseguru-en legeriaren eta aseguru-polizaren arabera kalte-ordaina dagokien kalteen balorazioa Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak egingo du, eta Partzuergoa ez da lotetsita egongo arrisku arruntak estaltzen dituen erakunde aseguratzailleak egindako balorazioekin, halakorik egonez gero.
4. Kalte-ordainaren ordainketa: Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak banku-transferentzia bidez ordainduko dio kalte-ordaina aseguruaren onuradunari.

## Telefono interesgarriak

*larrialdietarako telefonoa 112*

*LAGUNTEL 944 94 74 28*

## Oharrak



**AUTOMOBILA**

**ETXEBIZITZA**

**AURREZKIA** AURREIKUSPENA

**BIZITZA**

**ISTRIPUAK**

**OSASUNA**

**NEGOZIOA**

**EGUNEKO BAJA**